

AKORDIOAREN III. ERANSKINA

ZERBITZUAK KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA
(Prozedurak: irekia, murriztua eta negoziatu publizitadeduna)

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea agiri honen karatulako 1. puntuan ezarri da.

Xedea multzotan zatituta badago eta bakoitza bere aldetik esleitzen bada, multzoen kopurua karatularen puntu horretan bertan ere adierazten da, bai eta agiri honen IV. eranskinean ere (multzo bakoitzaren kontzeptua edo edukia azaltzen da bertan).

Kontratuaren xedea produktu- edo jarduera-unitate kopuru jakina bada eta esleipendunak eskaintako prezioa aurrekontuan ezarritako zenbatekoa baino gutxiago bada, unitate-kopurua karatulan finkatutako gehieneko aurrekontua agortu arte gehitu daiteke.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko (hemendik aurrera SPKL) 100. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratatuko den prestazioa gauzatzeko baldintza teknikoak, prestazioaren kalitatea zehazten dutenak, kontratuaren baldintza teknikoen agirian daude ezarrita.

2.- KONTRATU-AGIRIAK.

Karatulan adierazten direnez gainera, ondokoak dira kontratu-agiriak:

- a) Administrazio-klausula zehatzen agiria.
- b) Baldintza tekniko zehatzen agiria.
- c) Kontratua formalizatzeko agiria.
- d) Behar denean, Administrazioak onartutako lan-programa.

3.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA-

3.1.- Kontratua administratiboa da eta ondoren azalduko diren arau eta agirien arabera izan beharko da.

3.2.- Lehenengo-lehenengo, hauen arabera:

- a) Administrazio-klausula zehatzen agirian jasotako klausulak, Karatulako zehaztapenen arabera (Karatula agiriaren osagaia da).
 - b) Baldintza tekniko zehatzen agiriko klausulak.
 - c) 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (SPKL).
 - d) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua.
 - e) 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (APKLEO) onartu zuena, SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.
 - f) Azterketa eta zerbitzu teknikoak kontratatuzeko administrazio-klausula orokorren agiria onartu zuen 1972ko martxoaren 8ko Agindua, lehen aipatutako legean eta erregelamenduan ezarritakoaren kontra ez doan heinean.
 - g) Kontratu-agiriak.
- Bai eta hauek ere, kontratua ukitzen duten heinean:
- h) 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, datu pertsonalen babesari buruzkoa.
 - i) 59/2003 Legea, abenduaren 19koa, Sinadura Elektronikoiari buruzkoa.
 - j) 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, Informazio eta Merkataritza Elektronikoen Gizarteko Zerbitzuei buruzkoa.
 - k) Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko abuztuaren 16ko Agindua, herri-administrazioen kontratuei buruzko legerian ezarritako prozedura eta jarduketara batzuk telematiko izapidetzeari buruzkoa.
 - l) Estatu mailako nahiz Euskal Autonomia Erkidegoaren mailako kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, erkidego horren esparruan aplikatzekoa bada.

Osarri modura, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta administrazio-zuzenbidearen arloko gainerako arauak eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

3.3.- Kontratistak, nahiz eta ez ezagutu kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako agiriak edo Administrazioak onartutako jarraibide, klausula-agiri edo era guztietako arauak, eta horiek guztiak hitzartutakoa betetzeko aplikatu beharrekoak badira, guztiak betetzeko obligazioa izaten jarraituko du, ez da horregatik betebeharrerik salbuetsia izango.

4.- GAI HAUEI BURUZKO INFORMAZIOA: ZERGAK, INGURUMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA, ENPLEGUAREN BABESA, LAN-BALDINTZAK ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA.

Kontratu lortu nahi duten enpresek foru-aldundietan eskura dezakete zerga-kontuei buruzko informazioa.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Lan Zuzendaritzan lortu ahal da enpleguaren babesari, lan-baldintzei eta lan-arriskuaren prebentzioari buruz indarrean diren eta kontratu gauzatzeko aplikatzekoak diren xedapenei buruzko informazioa, kontratuaren klausula-agirietan arlo horri buruz ezarritako klausula gehigarriez gain aplikatu beharreko xedapenei buruzkoa, alegia.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumen Sailburuordetzan lortu ahal da, IHOBE sozietate publikoaren bidez, ingurumenaren arloan indarrean diren eta kontratu gauzatzeko aplikatzekoak diren xedapenei buruzko informazioa, kontratuaren klausula-agirietan arlo horri buruz ezarritako klausula gehigarriez gain aplikatu beharreko xedapenei buruzkoa, alegia.

Halaber, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde autonomoan lortu ahal da emakume eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean diren eta kontratu gauzatzeko aplikatzekoak diren xedapenei buruzko informazioa, kontratuaren klausula-agirietan arlo horri buruz ezarritako klausula gehigarriez gain aplikatu beharreko xedapenei buruzkoa, alegia.

5.- KONTRATUAREN AURREKONTUA ETA KREDITUA EGOTEA.

Administrazioak kontratu honetarako jarritako aurrekontuaren zenbatekoa karatulako 3. puntuan dago zehaztuta, urtekoetan banatuta (hala balegokio). Zenbateko hori zehazteko, karatulako 4.1 puntuan jasotako sistema erabili da.

Karatulan adierazi ezean espedientea izapidetze aurreratuko dela (hala bada, kontratu esleitzeko ezinbestekoa izango da ekitaldi ekonomikoko aurrekontuan kreditu nahikoa egotea), badago kreditu nahikoa Administrazioak kontratuaren ondoriozko betebeharreri aurre egiteko. Karatulako 24. puntuan zehaztutakoa izango da aurrekontuko diru-izendapena.

6.- KONTRATUAREN PREZIOA.

Kontratuaren prezioa izango da esleipenetik ateratzen dena; ezingo da izan Administrazioak ezarritako aurrekontua baino handiagoa.

Kontratuaren prezioan honako hauek guztiak sartzen dira: zerga, tasa eta kanon aplikagarri guztiak eta prestazioak eragiten dituen gainerako gastu guztiak, edo esleipendunak agiri honetan ezarritakoa bete beharrez egiten dituenak. Prezioa esleipen-ebazpenean zehazten diren urtekoen kargura ordainduko da.

Agiri honen karatulako 4. puntuan hala aurreikusita bada, puntu horretan bertan prezio-aldaketari buruz ezarritako klausulak aplikatuko dira, epeei edo errendimenduei buruzko zenbait helburu betetzen diren heinean (*SPKL*, 75.4 artikulua.), eta prezioak ere berrikusiko dira, ondoko klausulan aurreikusita dagoen bezala.

7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA.

Enpresa kontratistaren gain izango dira kontratu gauzatzekoak dakartzan arriskuak. Hala ere, prezioak berrikusteari dagokionean, karatulako 4.4 puntuan ezarritako formula hartuko da aintzat, indarreko legerian xedatutakoa kontuan hartuta (*SPKL*, 77. artikulua, *hurrengoak eta osagarriak*; *APKLEEO*, 104. artikulua eta *hurrengoak*).

Karatulan prezioak berrikusteko aukera aurreikusten bada, kontratua kostuaren % 20ra arte gauzatu denean soilik berrikusi ahal izango dira prezioak, eta esleipen-egunetik urtebete igaro ondoren. Beraz, ez kostuaren % 20 ez esleipena egin ondoko lehenengo urtea ezingo dira berrikusi. Erreferentzia-indizea Estatistikako Institutu Nazionalak egindako Kontsumoko Prezioen Indizea denean, edo indize horretan sartzen diren multzoen, azpimultzoen, klaseen edo azpiklaseen indizeetako edozein denean, berrikuspenak ezingo du gainditu hautatutako indizeak jasandako aldaketaren ehuneko 85 (*SPKLaren 78.3 artikulua*).

Baldin eta, aldiren batzuetan kontratista berandutu delako, aldi horiei berrikuspen-klausularen bat aplikatu behar bazaie dagokien zigorrei kalterik egin gabe, kontuan hartu beharko diren prezioen indizeak, kontratuan prestazioa epe barruan gauzatzeko ezarritako datei legozkiekeenak izango dira; baina, prestazioa egiteko finkatutako benetako aldiari dagozkion indizeek beheragoko koefizienterik sortzen badute, azken horiek aplikatuko dira, ez bestea.

8.- KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA ETA KONTRATUAREN IRAUPENA.

8.1.- Araubide orokorra.

Kontratuaren epea, hau da, kontratuaren xedea gauzatzeko gehieneko epea, eta gehieneko epe partzialak agiri honen karatulako 5. puntuan daude ezarrita. Nolanahi ere, epea eskaintzak baloratzeko irizpidea denean, lizitatzailerek, eskaintzan, laburtu egin ditzakete entrega-epe partzialak; orobat traktu bakarreko kontratuetan (xedea transferentzia bakar baten bitartez gauzatzen den kontratu-mota, entrega partzialak hitzartzeko aukeraren kalterik gabe).

Kontratua gauzatzeko guztizko epea, kontratua sinatu eta hurrengo egunean hasiko da kontatzen. Salbuespena: espedientea presazkoa dela adierazten bada, kontratua formalizatu gabe ekin dakioko lanari, behin betiko bermea eraturatukoan (eskaten bada), SPKLko 96.2.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Honelako kasuetan, kontratua gauzatzeko epea Administrazioak agindu-idazkia ematearekin batera hasiko da; Administrazioak agindurik eman ezean, behin betiko esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean hasiko da.

Gainera, kontratua segidako traktukoa bada (hau da, kontratuaren xedea prestazio bat behin eta berriz edo jarduera bat etengabe gauzatzea bada), luzapena edo luzapenak egiteko aukera egongo da, SPKLko 279.1 artikuluan ezarritako mugarekin eta artikuluko horretan bertan araututako salbuespenezko kasua eragotzi gabe.

Betiere, enpresa kontratistak ezin badu epe bat bete berari egotzi ezin zaion arrazoiengatik, luzatu egin daiteke (*SPKL, 197.2 artikulua*).

8.2.- Araudi bereziak:

8.2.1.- Obra- eta hornidura-kontratu baten osagarri diren kontratuak (Karatulako 5.1 puntuan zehaztu behar da) aldi luzeagoan egon daitezke indarrean, baina inolaz ere ez kontratu nagusia baino denbora gehiago; salbuespena: kontratu osagarriaren xedeak kontratu nagusiaren likidazioari lotutako lanak hartzen baditu, lan horiek burutzeko beste luza daiteke. Kontratu osagarriaren hasiera etenda egongo da obra-kontratu nagusiari ekin arte, xedeari eta edukiari dagokion arrazoi justifikatu batek hasi beharra eragin ezean.

8.2.2.- Zerbitzu-kontratuei dagokienez, xedea obra baten zuzendaritzari laguntzea edo proiektu baten kudeaketa integratua bada, obra-kontratuarena bera izango da kontratuaren iraupena, obrak likidatzeko aurreikusitako aldia gehituta.

8.2.3.- Aldi baterako lan-enpresekin inkestak egiteko, datuak biltzeko edo antzeko beste lan batzuk egiteko sinatzen diren zerbitzu-kontratuek ezin dute iraun sei hilabete baino gehiago; epe hori amaitutakoan, kontratua azkendu egingo da, inolako luzapenik gabe.

8.2.4.- Administrazioaren defentsa juridiko eta judizialerako kontratuek behar beste denbora iraungo dute.

8.3.- Kontratua luzatzeko prozedura.

Karatulako 5.3 puntuan ezarritako gero, alderdiek, elkar hartuta, kontratua luzatzea hitzartu dezakete prestazioak berriro gauzatzeko. Horretarako, baldintza hauek bete behar dira: luzapenak iraun bitartean, prestazioaren ezaugarriak ez dira aldatu behar, eta, kontratua esleitzeko lehian, kontuan eduki behar da kontratuaren gehieneko iraupena, luzapenak barne (*SPKL, 279.1 artikulua*).

Luzapena berariaz hitzartu behar dute alderdiek; ezin da gertatu haien isilbidezko adostasunez (*SPKL*, 23.2 artikulua).

Horretarako, esleipendunak luzapen-eskaera bidali behar dio Administrazioari, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago gutxienez.

Luzapena onartu baino lehen, Administrazioak aldebiko espedientea egin behar du, eta bertan ondokoak jaso behar dira nahitaez: kontratazio-mahaiaren aholkulari juridikoaren txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena (uztailaren 28ko 148/2000 Dekretuak aurretiazko fiskalizaziotik salbuesten ez badu), gastuaren fiskalizazioa eta, hala balegokio, hurrengo ekitaldi ekonomikoetarako konpromisoaren fiskalizazioa.

9.- IZAPIDEAK, PROZEDURA ETA ESLEITZEKO MODUA.

9.1.- Kontratazioaren espedientea izapidetze arruntekoa edo presako izapidetzekoa izango da, karatulako 25.1 puntuan adierazitakoaren arabera.

9.2.- Kontratu hau prozedura irekiaren, mugatuaren edo negoziatu publizitadedunaren bidez esleituko da, goiburuan eta karatulako 25.2 puntuan ezarritakoaren arabera.

Prozedura mugatua edo prozedura negoziatu alde aurreko publizitadeduna erabiltzen bada, agiri honen I. eranskinean ezarritakoa aplikatuko da.

9.3.- Kontratua esleituko da preziorik baxuena aplikatuz eskaintzak baloratzeko irizpide bakartzat, edo eskaintzak baloratzeko hainbat irizpide aplikatuz, Karatulan ezarritakoaren arabera.

10.- LIZITAZIO- ETA KONTRATAZIO- SISTEMA ELEKTRONIKOA.

Eskaintzak aurkezteko, agiriak bidali eta jasotzeko eta kontratuak sinatzeko sistema elektronikoa Karatulako 26. puntuan baimendutako kasuetan soilik erabil daiteke.

Izapideak telematikoki egin nahi dituztenek edo jakinarazpen elektronikoak jaso nahi dituztenek ziurtagiri elektronikoa onartu bat eduki behar dute, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko abuztuaren 16ko Aginduan ezarritakoaren arabera (EHAA, 164. zk., 2004ko urriaren 27koa), eta, horrez gainera, III. eranskinean ezarritako betekizun guztiak bete behar dituzte.

Sistema erabiltzeko modua III. eranskinean zehaztu da eta onartutako ziurtagirien zerrenda atari honetan agertuko da: www.contratacion.info o www.euskadi.net/contratacion.

Sistema berariaz onartu behar da; onarpenak berekin ekarriko du enpresak baimena ematea bere datuak, lizitazio elektronikoa erabiliko direnak, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialekoekin erkatuta egiaztatzeko.

II.- KONTRATAZIO-PROZEDURAN PARTE HARTZEA.

11.- PARTE HARTZEKO ARAU OROKORRAK.

11.1.- Betekizun orokorrak:

11.1.1.- Enpresa bakoitzak proposamen edo parte hartzeko eskaera bakarra aurkeztu ahal du (hala ere, baliteke karatulan aldaerak aurkezteko aukera ematea), dela bakarrik, dela aldi baterako enpresa elkarte bat baino gehiagotan kide izanik. Bakarrik parte hartzen dutenak ezin dira aurkeztu elkarte batean beste batzuekin batera. Arau hauek hausten dituztenek aurkezten dituzten eskaintza edo eskaerak ez dira onartuko.

11.1.2.- Ondokoek har dezakete parte kontratazio-prozeduran: jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridiko espainiar nahiz atzerrikoek, baldin eta kontratazioa debekatuta ez badute eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala –edo, hala balegokio, karatulako 29. puntuan eskatutako sailkapena- badituztela frogatzen badute.

11.1.3.- Halaber, lizitatzaiileek kontratua behar bezala betetzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak eduki behar dituzte, bai eta kontratuan ezarritako jarduera edo prestazioa gauzatzeko behar den enpresari- edo lanbide-gaikuntza ere.

- 11.1.4.- Pertsona juridikoez beren estatutuen edo eratzeara arabera berezko dituzten helburuekin, xedarekin edo jarduera-esparruarekin bat datozen prestazioak kontratatzeke lizitazioetan baino ezin dute parte hartu.
- 11.1.5.- Agiri honen karatulan kontratua enplegu-zentro berezientzako erreserbatzen bada, edo babestutako enpleguko programen esparruan gauzatzeko, eta zentro edo programa horietako langile gehienek desgaitasunen bat badute eta, beren gaitzaren izaera edo larritasuna dela eta, ezin badute beren lanbide-jardueran normaltasunez jardun, lizitazioan parte hartzeke ezinbestekoa izango da, gaitasunaren eta kaudimenaren inguruko betekizunak ez ezik erreserba horren baldintzak ere bete ditzaketela frogatzea (ikus karatulako 27. puntua).
- 11.2.- Bateriaezintasunak:
- 11.2.1.- Kontratuaren zehaztasun teknikoak finkatzen edo prestakuntza-agiriak idazten parte hartu duten enpresak ezin dira lehiatu lizitazioan, baldin eta parte hartze horrek lehia askea eragozten badu edo gainerako enpresen aldean pribilegiozko tratua jasotzea badakar (*SPKL, 45.1 artikulua*).
- 11.2.2.- Kontratuaren helburua obrak edo instalazioak nola egiten diren zaintzea, gainbegiratzea, kontrolatzea edo zuzentzea bada, kontratu horiek ezin izango zaizkie eman obra horien kontratuen esleipendun diren enpresei edo enpresa horiekin lotutakoei, hau da, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako kasuetakoren batean daudenei (*SPKLren 45.2 artikulua*).
- 11.3.- Ondorioak:
Enpresa batek eskaintza edo parte hartzeke eskaera aurkezten badu, agiri honetako klausulak, karatulako zehaztapenak eta gainerako kontratu-agiri guztiak inolako baldintzarik gabe eta salbuespenik gabe onartu dituelako presuntzioa eragingo du, eta, orobat, erantzukizunpeko adierazpen hau egiten duelakoa: aurkeztutako datu guztiak egiazkoak direla eta prestazioa kontratatzeke eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.
- 12.- ESKATUTAKO AGIRIAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA.
- 12.1.- Aurkeztu beharreko agiriak. Aurkezteke epea:
Prozeduran parte hartu nahi duten enpresek karatulako 28.2 puntuan azaltzen diren gutun-azalak aurkeztu behar dituzte 28.1 puntuan ezarritako epean.
- 12.2.- Agiriaren gutun-azalen kanpoaldeko ezaugarriak. Prozeduran parte hartu nahi duten enpresek karatulako 28.2 puntuan azaltzen diren gutun-azalak aurkeztu behar dituzte 28.1 puntuan ezarritako epean.
- a) Gutun-azala zein den (A «Gaitasuna eta kaudimena», B «Eskaintza ekonomikoa eta formula bidez baloratzen diren irizpideak», C «aplikatzeko balio-judizioa behar duten irizpideak», edo karatulako 31.2 puntuan adierazitako beste gutun-azalen bat).
- b) Kontratua zein den (espedientearen zenbakia eta kontratuaren xedea, laburtuta).
- c) Enpresaren izena.
- d) Proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta kargua, helbidea, telefono-zenbakia, fax-zenbakia eta helbide elektronikoa.
- e) Gutun-azalak enpresak edo haren ordezkariak sinatuta aurkeztu behar dira. Enpresa batzuek aldi baterako elkartearen eratzeara badute lizitazio batean parte hartzeke, denek sinatu behar dituzte gutun-azalak.
- 12.3.- Aurkezteke tokia.
- 12.3.1.- Dokumentazioa karatulako 28.3 puntuan adierazitako tokian aurkeztu behar da.
- 12.3.2.- Agiriak postaz bidaltzen badira, postetxean bidalketari ezarritako data frogatu behar du enpresak, eta kontratazio-organoari bidalketaren berri eman behar dio, agiri honen karatulako 28.5 puntuan zehaztutako moduetako baten bidez. Bi gauzak, agiriak bidaltzea eta kontratazio-organoari bidalketaren berri ematea, iragarkian aurkezpena egiteke ezarritako epea (eguna eta ordua adieraziz ezarritakoa) amaitu baino lehen egin beharko da.

Bi baldintza hauek bete ezean, agiriak ez dira onartuko, aurkezteko epea (eguna eta ordua) amaitu ondoren jasotzen badira. Epe hori amaitu eta egutegiko hurrengo hamar egunetan jasotzen ez badira, ez dira inolaz ere onartuko.

Agiriak bidali zaizkiola posta elektronikoz jakinarazten bazaio kontratazio-organoari, jakinarazpen hori baliozkoa izan dadin, ezinbestekoa da jasota gera daitezen bidali izana eta jaso izana, noiz bidali den eta noiz jaso den, bai eta ondo zehaztea ere zer bidali den (komunikazioaren eduki osoa), nork bidali duen eta nork jaso behar duen. Halakoetan, kopia bat inprimatu eta erregistratu behar da. Kopia espedienteari erantsiko zaio.

12.3.3.- Izapideak telematikoki eginez gero, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko abuztuaren 16ko Aginduan eta klausula-agiri honetako 10. klausulan eta III. eranskinean ezarritakoari jarraituz bidaliko dira agiriak.

12.4.- Aurkeztutako agiriei buruzko ohar argigarriak.

12.4.1.- Enpresek eskatzen diren jatorrizko agiriak zein haien kopiak aurkez ditzakete; kopiak aurkeztuz gero, administrazio kontratatzaileak edo notarioak konpultsatuta egon behar dira, eta, aldiz, behin-behineko bermearren kasuan, jatorrizko agiria aurkeztu behar da, nahitaez.

12.4.2.- Esleipenaren aurkako errekursoak aurkezteko epeak amaitu eta inork ez badu halakorik aurkeztu, aurkeztu dituen enpresaren esku geratuko dira proposamenekin batera aurkeztutako agiriak.

12.4.3.- Hala ere, esleipena irmo bihurtzen denetik hiru hilabete pasatutakoan, Administrazioak erabaki ahal izango du aurkeztutako agiriak suntsitzea, baldin eta enpresek ez badituzte berreskuratu.

12.4.4.- Agiriak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean aurkeztu behar dira, hau da, euskaraz edo gaztelaniaz. Beste hizkuntza batean idatzita badaude, itzulpen ofiziala erantsi behar zaie.

12.5.- Agiriak egiaztatzea. Administrazioak gutun-azaletako agirietan adierazitakoa egiaztatu ahal izango du, hala kontratua esleitu aurretik nola ondoren, bai eta kontratua indarrean dagoen artean ere. Enpresak emandako datu eta azalpenak gezurrezkoak badira, kontratua deusezteko arrazoi izan daiteke, enpresari egotz dakiokkeen hutsegitetzat jota, eta horrek behin-behineko bermea galtzea eragin dezake edo, bestela, bermerik eratu ez bada edo eratu beharrik egon ez bada, bermea adinako kalte-ordaina ordaindu beharra; horrez gain, eragindako kalte eta galeren ordaina eman beharko zaio Administrazioari, hain zuzen ere galdutako bermeak estaltzen ez duen zenbatekoa.

13.- A GUTUN-AZALA «GAITASUNA ETA KAUDIMENA»

13.1.- Arau orokorrak:

13.1.1.- Gutunen kanpoaldeari dagozkion betekizunak eta gutun-azalaren edukia: gutunaren kanpoaldean 12.2 klausulan adierazitakoa jarri behar da eta barruan 13.2 klausulan («agirien zerrenda») aipatzen diren agiriak sartu behar dira.

13.1.2.- Lizitatzailen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialak:

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean erregistratuta dauden enpresek ez dituzte aurkeztu behar 13.2.3, 13.2.4, 13.2.6 eta 13.2.7 eta 13.2.8.1 klausuletan adierazitako agiriak, baldin eta indarreko ziurtagirian klausula horietako datuak jasotzen badira eta gutun-azalean honako hauek sartzen badira:

a) Erregistroko inskripzioaren indarreko ziurtagiria (*karatulako 29.5.c) puntuan ofizioz eransteko baimena ematen bada, ziurtagiria gabe enpresak VIII. eranskineko 6.1.a) puntuan ezarritako baimena aurkez dezake*).

b) Enpresaren erantzukizunpeko adierazpena, ziurtagirian jasotakoa ez dela aldatu dioena (agiri honen VIII. eranskineko 6.1.b) puntua). Esleipendunak berretsi egin beharko du adierazpen hori kontratua formalizatzeko agirian.

Kontratisten Erregistro Ofizialaren ziurtagiriak eta erantzukizunpeko adierazpenak ez dute salbuesten gutun-azalean 13.2.1, 13.2.2, 13.2.5 eta 13.2.11 klausuletan ezarritako nahitaezko agiriak sartu beharretik, ez eta -karatulan eskatuz gero- 13.2.8.2, 13.2.10, 13.2.12 eta 13.2.13 klausuletan ezarritakoak sartu beharretik ere. Ez dute salbuesten, orobat, 13.2.14 eta 13.2.15 klausuletan aurreikusitakoak aurkeztetik, nahiz eta horiek aurkeztea borondatezkoa izan enpresarentzat.

- 2.- Estatuko Lizitatzailen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko inskripzioaren ziurtagiriak SPKLko 72.1. artikuluan ezarritako ondorioak sortuko ditu.
 - 3.- Lizitatzaille eta kontratisten beste erregistro ofizial batzuetako inskripzioaren ziurtagiriak agiri honetako karatulan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.
 - 4.- Karatulako 29.5.b) eta c) puntuetan ezarritako gero, erregistro horietako ziurtagiriak modu elektronikoan eman ahal izango dira eta Administrazioak bere kabuz erantsi ahal izango dizkio prozedurari.
- 13.1.3.- Lizitazio- eta kontratazio- sistema elektronikoa: sistema elektronikoa erabiltzea zilegi denean, erabiltzen dutenek ez dute aurkeztu behar Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta daudelako ziurtagiria, ez eta Erregistroko ziurtagiria aurkezteko betebeharretik salbuesten duten agiriak ere. Hala ere, aurreko 1. idatz-zatiko b) letran aipatutako erantzukizunpeko adierazpena, VIII. eranskineko 6.1.b) idatz-zatian ageri dena, aurkeztu behar dute, eta Erregistroaren ziurtagiriak aurkeztu beharretik salbuesten ez dituen agiriak ere bai.
- 13.1.4.- Atzerriko enpresek kontuan eduki behar dute 12.4.4 klausulan hizkuntzari buruz ezarritakoa eta agiri honen II. eranskinean aurkeztu beharreko agiriez ezarritakoa.
- 13.2.- Agirien zerrenda:
- 13.2.1.- Agirien zerrenda: aparteko orri batean gutun-azalean sartutako agirien zerrenda egin behar da, bakoitzak bere zenbakia daukala.
 - 13.2.2.- NAN: norberaren izenean edo besteren ahalduan gisa eskaintza edo parte hartzeko eskaera sinatzen duenaren Nortasun Agiri Nazionala.
 - 13.2.3.- Eskritura eta estatutuak: kontratua lortzeko lehiatu nahi den enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritzako Erregistroan inskribatutako agiri hauek aurkeztu behar ditu, agiriok inskribatzea aplikatzekoa zaion merkataritza-legeriaren eskakizuna bada: eraketa-eskritura, aldaketen eskritura eta indarreko estatutuak. Baldin eta agiriok inskribatzea ez bada aplikatzekoa zaion merkataritza-legeriaren eskakizuna, pertsona juridikoaren jardura arautzen duten arauak jasotzen dituen eraketa-eskritura, aldaketen eskritura, estatutuak edo sortze-egintzaren agiria, pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan inskribatua.
 - 13.2.4.- Ahalordetzea: eskaintza edo parte hartzeko eskaera sinatzen duen pertsona ez bada bere izenean ari, edo enpresa interesduna sozietatea edo pertsona juridikoa bada, sinatzaileak berariazko ahalorde askietsia aurkeztu behar du. Enpresa interesduna pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon behar da. Ahalordea egintza jakin baterako bada, ez da beharrezkoa Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea, Merkataritza Erregistroko Erregelamenduaren 94.1.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - 13.2.5.- Antolamendua: enpresak frogatu behar du badauzkala kontratua behar bezala betetzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak.
 - 13.2.6.- Enpresa- edo lanbide-gaitasuna: karatulako 29.4 puntuan zehaztuz gero, enpresari- edo lanbide-gaitasuna frogatzeko, puntu horretan adierazitako agiriak aurkeztu behar dira. Karatulak azpikontrataziorako aukera ematen bada eta enpresari- edo lanbide-gaikuntza prestazioaren atal jakin batzuetarako soilik eskatzen bada, kontratuaren esleipena lortu nahi duen enpresak, gaikuntzaren edo baimenaren orde, atal horiek beharrezko gaikuntza edo baimena duten enpresei azpikontratatzeko konpromisoa aurkez dezake. Nolanahi ere, azpikontratazioaren bidez ezin da gauzatu kontratuaren xedearen % 50 baino gehiago. Azpikontratazio-konpromisoak baldintza hauek bete behar ditu:
 - a) Lehenbizi agiri pribatuan aurkez daiteke. Hala ere, enpresak behin-behineko esleipena eskuratzen bada, eskritura publikoan jaso behar da.
 - b) Konpromisoan hauxe ezarri behar da: kontratua esleitzuz gero, enpresak hitzartutako kontratuaren zatia gauzatzeko behar diren baliabide guztiak jarriko dituela azpikontratutako enpresaren esku.

- c) Azpikontratista izango dena identifikatzeko, beraren izena edo enpresariaren profila adierazi behar da. Ondoren, esleipendunak beste enpresaren bat azpikontratatu nahi izanez gero, SPKLren 210.2 artikuluko a) eta c) letretan ezarritakoa aplikatuko da.
- 13.2.7.- Kontratatzeke debekuak: SPKLren 49. artikuluan azaltzen den kontratatzeke debekuren baten eraginpean ez dagoela frogatzen duen agiria (kontratuaren erreferentzia berariaz aipatu behar da). Horretarako, agiri honen VIII. eranskineko erantzukizunpeko adierazpena aurkez daiteke, edo bestela SPKLko 62. artikuluan ezarritako bideetako batetik jo daiteke. Behin-behineko esleipena eskuratzen duen enpresak agiri honetako 25. klausulan ezarritakoa frogatu behar du, eta, frogatu ere, bertan ezarri den bezala.
- 13.2.8.- Gaitasuna:
- 13.2.8.1.- Karatulako 29.1 puntuan sailkapen jakin bat eskatzen bada, lizitatuzaileak frogatu behar du puntu horretan adierazten diren zerbitzuak (taldea, azpitaldea eta kategoria) kontratatzeke adinako sailkapena baduela, eta ez dagoela iraungita, erregistro eskudunak emandako ziurtagiriaren bitartez. Ziurtagiriarekin batera enpresak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du, honako hau adieraziz: ziurtagirian azaltzen dena ez dela aldatu (ikus VIII. eranskineko 5. idatz-zatia). Esleipendunak berretsi egin beharko du adierazpen hori kontratua formalizatzeke agirian (*SPKL, 130.3 artikulua*).
- Karatulako 15. puntuan ezartzen bada azpikontratatu daitekeela eta kontratuaren xede den prestazioaren zati bat lanbide-gaikuntza edo -baimen zehatz bat daukaten enpresa espezializatuek egin behar dutela, enpresak, espezializazio horri dagokion taldeko sailkapenaren orde (eskatuz gero), kontratuaren zati hori beharrezko gaikuntza eta, beharrezkoa bada, sailkapena daukaten enpresei azpikontratatzeko konpromisoa aurkez dezake. Nolanahi ere, azpikontratazioaren bidez ezin da gauzatu, guztira, kontratuaren prezioaren % 50 baino gehiago (*SPKL, 54.1 artikulua*). Azpikontratazio-konpromisoak 13.2.6 klausulako a), b) eta c) letretan ezarritako baldintzak bete behar ditu.
- Enpresa sailkatu gabe balego artean, sailkatua izateke eskaera egin duelako frogagiria aurkeztu behar du, eta dokumentazioko akatsak eta gabeziak zuzentzeke ezarritako epea amaitu baino lehen frogatu behar du baduela eskatutako sailkapena (*SPKL 130.1.b artikulua*).
- 13.2.8.2.- Karatulan sailkapenik eskatzen ez bada, karatulako 29.2 puntuan ekonomia- eta finantza-kaudimenaz eta gaitasun teknikoaz ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzen duten agiriak aurkeztu behar dira.
- Kaudimena dela eta, enpresa beste erakunde batzuen bitartekoez balia daiteke, baina frogatu behar du egiaz dituela eskura baliabide horiek kontratua gauzatzeko.
- Enpresa batek indarrean badu kontratuaren xedeari dagokion talde eta azpitaldeko kontratuak egiteke behar den sailkapena, Karatulan puntu horretan eskatzen diren frogagiriaren orde sailkapenaren frogagiria aurkez dezake.
- 13.2.9.- Baliabideak izendatzeko eta kontratua gauzatzeko baldintza bereziak betetzeko konpromisoa: enpresak klausula-agiri honetako VII. eranskinean ageri diren giza baliabideak eta baliabide pertsonalak izendatzeko konpromisoa aurkeztu behar du sinaturik.
- 13.2.10.- Langileen izenak eta lanbide-kualifikazioak: karatulako 29.6 puntuan eskatuz gero, enpresak prestazioan ariko diren pertsonen izenak eta lanbide-kualifikazioak zehaztu behar ditu. Behin-behineko esleipendun gertatzen bada, baliabideak badauzkala frogatu behar du.
- 13.2.11.- Taldeko enpresen zerrenda (VIII. eranskineko 6.2 idatz-zatia). SPKLren 129.4 artikuluko bigarren paragrafoan eta APKLEOren 86.1 artikuluan xedatutako ondorioetarako, talde bateko kide diren enpresa guztien zerrenda aurkeztu behar da. Talde bereko kide dira Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan adierazitako kasuetan dauden guztiak.—Taldea batean ez daudenek horri buruzko adierazpena aurkeztu behar dute.

13.2.12.- Azpikontratastak: karatulako 15.3 puntuak eskatuz gero, enpresek kontratuaren zein atal azpikontratatu nahi duten zehaztu behar dute. Kontratuaren atal horren ehunekoa ere adierazi behar dute, eta azpikontratastaren izena edo enpresari-profila ere eman behar dute, lanbide-gaitasunaren edo gaitasun teknikoren baldintzen arabera zehaztua.

13.2.13.- Behin-behineko bermea: karatulako 7.1 puntuan eskatuz gero, kontratua lortzeko lehiatu nahi diren enpresek behin-behineko bermea jarri beharko dute, hain zuzen ere bertan adierazitako kopurua (*SPKL, 91. artikulua*).

Ondoren bermea nola eratu behar den eta nola jar daitekeen azalduko da:

- a) Eskudirua zein Zor Publikoko baloreak erabil daitezke. Bermea eskudirutan eratu nahi izanez gero, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusian utzi behar da, edo dagokion erakundean, horren establezimendu baliokidean; baloreak erabili nahi izatera, ostera, idaztohartutako baloreak ibilgetu direlako ziurtagiriak aurkeztu behar zaizkio kontratazio-organoari.
- b) Abala erabil daiteke, jarduteko baimena duen banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, kredituko finantza-erakunde edo elkarren bermerako sozietate batek emandakoa. Hala eginez gero, kontratazio-organoari aurkeztu behar zaio.
- c) Kauzio-aseguruko kontratua ere erabil daiteke, arlo honetan jarduteko baimena duen aseguru-erakunde batekin egina. Aseguruaren ziurtagiria kontratazio-organoari aurkeztu behar zaio.
- d) Karatulako 7.5 puntuan baimenduz gero, prezioaren zati bat atxiki daiteke berme gisa.

Behin-behineko bermearen ordez EAeko Diruzaintza Orokorra edo dagokion erakunde publikoak berme orokorra badagoela, berme hori nahikoa dela eta eratu beharreko bermearen zenbatekoa ibilgeturik dagoela adieraziz emandako ziurtagiria aurkeztu ahal izango da.

Karatulako 7.4 puntuak aukera ematen badu, bermea eratu dela frogatzeko bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabili ahal izango dira.

Behin-behineko bermea kontratua behin betiko esleitutakoan itzuliko zaie esleipendunari ez beste guztiei; behin-behineko esleipendunaren bermea behin betiko bermea eratu arte atxikiko zaio (*SPKL, 91.2 eta 91.4 artikulua*).

13.2.14.- Esleipen-lehentasanak: kontratua eskuratzeko lehiatzen den enpresa batek nahi badu 23.2 klausulan ezarritako esleipen-lehentasanak aplikatzea (betiere beharrezkoa den egoera gertatzen bada) honako agiri hauek sartu behar ditu gutun-azal honetan:

- a) Klausula horretako a) letran adierazitako lehentasuna aplikatzeko, Gizarte Segurantzaren TC2 agiria, azken hilekoa, enpresako langileei buruzkoa, eta enpresak sinatutako adierazpena, enpresako langileen artean % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenen langile-kopuruari buruzkoa (bakoitzaren NAN zenbakia jarri behar da).
- b) Klausulako b) letran adierazitako lehentasuna aplikatzeko, elkarlaneko kooperatiba izatea edo halakoak biltzen dituen bigarren graduko edo goragoko graduko kooperatiba izatea frogatzen duen agiria.
- c) Klausulako c) letran adierazitako lehentasuna aplikatzeko, dagokion erregistro ofizialean inskribatutako estatutuak edo sorrera-arauak.
- d) Klausulako d) letran adierazitako lehentasuna aplikatzeko, dagokion erregistro publikoan inskribatuta dagoelako egiaztagiria eta lanpostuen % 30 gutxienez klausulan bertan adierazitako taldeetako pertsonentzat izango direlako konpromisoa.
- e) Klausulako e) letran adierazitako lehentasuna aplikatzeko, Bidezko Merkataritzako erakundea dela adierazten duen ziurtagiria.

13.2.15.- Konfidentzialtasuna: beharrezkotzat joz gero, enpresak aukera du gutun-azal honetan sartutako eskaintzako informazio eta datuen artean isilpean gorde beharrekoak zeintzuk diren adierazteko, sekretu teknikoekin edo merkataritzakoekin zerikusia dutela eta; XI. eranskineko ereduaren bitartez egin behar du hori, eta eskaintzaren datu eta informazio horien eta sekretu tekniko edo merkataritzakoen arteko lotura hori azaldu egin behar du.

13.3.- Enpresen aldi baterako elkartea. Enpresa batzuek aldi baterako elkarre baten parte hartuz lehiatu nahi badute, bakoitzak bere jarduteko gaitasuna eta kaudimena frogatu behar ditu aurreko klausuletan ezarritakoarekin bat etorritz. Beraz, elkarteko kide guztiek aurkeztu behar dituzte A gutun-azaleko agiri guztiak, ondokoak kontuan hartuta:

- a) Karatulako 29.1 puntuan sailkapena eskatuz gero, SPKLko 56.5 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da eta aldi baterako elkarteko kideen sailkapenak, frogatuta dauden guztiak, metatu egingo dira. Ezinbestekoa da aldi baterako elkartea osatzen duten enpresa guztiek zerbitzu-kontrata gisa sailkatuta daudela frogatzea.

- b) Aldi baterako elkartean Estatuko enpresek eta EBko enpresa atzerritarrak eta EBtik kanpoko enpresa atzerritarrak badaude, Estatukoek eta EBko atzerritarrek sailkapena frogatu behar dute, eta EBtik kanpoko atzerritarrek, sailkapenik ezean, finantza- eta ekonomia-kaudimena eta gaitasun teknikoa (ikus II. eranskina).
- c) Behin-behineko bermea eskatzen bada, elkartea osatzen duten enpresetako batek edo batzuek era dezakete, baina ezinbestekoa da eskatzen den guztizko zenbatekoa jartzea, eta bermeak aldi baterako elkarteko enpresa guztiak hartzea modu solidarioan.

Gainera, aldi baterako elkarre batean parte hartu nahi duten enpresek honako hauek aurkeztu behar dituzte: alde batetik, proposamen-idazki bat, bertan adierazita zeintzuk diren proposamena sinatu duten enpresak eta bakoitzaren egoera, bakoitzak nola parte hartzen duen, nor izendatu den, kontratuaren ondoriozko eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiarekin, ordezkarri edo ahalordedun bakar gisa aritzeko (kopuru handiak kobratzeko eta ordaintzeko, ahalordeak mankomunatu ere izan daitezke); bai eta esleipena jasoz gero aldi baterako elkartea formalki eratze konpromisoa. Agiri hau elkarteko enpresa guztien ordezkariek sinatu behar dute. Kontratua aldi baterako elkarteari esleitzuz gero, proposamena eskritura publikoan formalizatu beharko da.

14.-B GUTUN-AZALA «ESKAINZA EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ BALORATZEN DIREN IRIZPIDEAK».

14.1.- Arau orokorrak.

Gutun-azal hau karatulako 31.1 puntuan eskatuz gero aurkeztu behar da. Kanpoaldean, 12.2 klausulan adierazitakoa jarri behar da eta, barruan, ondoko «agiri-zerrendan» adierazitako agiriak sartu behar dira.

14.2.- Agirien zerrenda:

14.2.1.- Agirien zerrenda: aparteko orri batean gutun-azalean sartutako agirien zerrenda egin behar da, bakoitzak bere zenbakia daukala.

14.2.2.- Eskaintza ekonomikoa (*klausula-agiri honetako VI. eranskina*): kontratua esleitzeko orduan, prezioa erabili eskaintzak baloratzeko irizpide bakartzat nahiz hainbat irizpide erabili, batera zein bestera, lehiakide bakoitzak eskaintza ekonomiko bakarra aurkez dezake. Lehiakidea banako enpresaria bada, berak sinatu behar du eskaintza; eta, aldiz, pertsona juridikoa bada, ordezkarriak sinatu behar du. Enpresen aldi baterako elkarre kasuan, elkarre eratan enpresa guztien ordezkariek sinatu behar dute eskaintza. Eskaintza agiri honen VI. eranskineko ereduari lotu behar zaio. Eskaintzen den prezioan ondokoak sartu behar dira: zerga, tasa eta kanon aplikagarri guztiak eta prestazioak eragiten dituen gainerako gastu guztiak, edo esleipendunak agiri honetan ezarritakoa bete beharrez sortzen diren guztiak. BEZari dagokion zenbatekoa aparteko partida batean ezarri behar da.

- Karatulako 28.7 puntuan aldaerak baimentzen badira, oinarriari dagokion eskaintza ekonomikoaz gainera, beste bat aurkeztu ahal da aldaera bakoitzeko. Aldaera bakoitzari dagokion eskaintza ekonomikoa ere VI. eranskineko ereduaren arabera egin behar da; bertan, klausula honetan ezarritako kontzeptuak eta baldintzak sartuko dira.
- Agirietan besterik ezarri ezean, kontratuaren xede diren lanak publikitate-zerbitzuak badira, enpresak egindako eskaintzaren zenbatekoan ondokoak sartuko dira: egin beharreko lanaren prezioa ez ezik, baita sormen-lanaren kostuak, originalak sortu eta ekoiztearenak, eta publikitate zabaldu eta komunikabideetan ematearenak ere.
- Unitate-prezioak eta beste erlazio batzuk. Agiri honen karatulako 4.1 puntuan ezartzen bada prezioa unitateko prezioen sistemaren bidez finkatuko dela, edo hainbesteko finkoaz (*Karatulako 4.1 puntua*) besteko sistemaren bat erabilita, eskaintza ekonomikoan (eredua VI. eranskinean dago), bertan zein erantsitako dokumentu batean, prestazioa osatzen duten unitate guztien unitate-prezioen zerrenda jaso behar da, edo eskaintza ekonomikoaren eredu horren eranskinean beste zerrendaren bat eskatzen bada, beste hori.

14.2.3.- Formula bidez baloratzen diren eskaintzen balorazio-irizpideen agiriak (*karatulako 31.1 puntuko lehen gidoia*): eskaintzak baloratzeko hainbat irizpide erabiliz esleitzen bada kontratua, aurreko agiriez gainera, ondokoak ere sartu behar dira B gutun-azalean: Karatulan prezioaz gainera aipatzen diren balorazio-irizpideei, formulak aplikatuz balora daitezkeenei, dagozkienak.

15.- C GUTUN-AZALA «APLIKATZEKO BALIO-JUDIZIOA BEHAR DUTEN IRIZPIDEAK».

15.1.- Arau orokorrak.

Gutun-azal hau kasu honetan baino ez da aurkeztu beharko: eskaintzak baloratzeko balio-judizioak behar dituzten irizpideak erabiltzen direnean, karatulako 31.1 puntuko bigarren gidoiak hala eskatuta.

Kanpoaldean, 12.2 klausulan adierazitakoa jarri behar da, eta, barruan, honako zerrenda honetan adierazitako agiriak sartu behar dira.

15.2.- Agirien zerrenda:

15.2.1.- Agirien zerrenda: aparteko orri batean gutun-azalean sartutako agirien zerrenda egin behar da, bakoitzak bere zenbakia daukala.

15.2.2.- Gutun-azal honetan, aplikatzeko balio-judizioa behar duten balorazio-irizpideak (eskaintzari dagozkionak) baloratzeko agiriak (karatulako 31.1 puntuko bigarren gidioan eskatzen direnak) sartu behar dira.

16.- B ETA C GUTUN-AZALETAKO ETA BESTE BATZUETAKO KLAUSULA ERKIDEAK.

16.1.- Hobekuntzak: eskaintzak baloratzeko irizpideetako bat hobekuntzak proposatzea bada, hau da, kontratuan ezarritakoez besteko prestazio gehigarriak, beste balorazio-irizpide batzuetan sartzen ez direnak eskaintzea, ondokoak hartu behar dira kontuan:

- a) Hobekuntzek ezin dute aldatu kontratuaren prezioa; agiri honen IX. eranskineko ereduaren arabera egin behar dira eta, Administrazioak berariaz onartuz gero, kontratuaren osagai izango dira.
- b) Hobekuntza horiek, eskaintzaren balorazioan eragina izango badute (kontzeptuaren azalpenean jasotako ezaugarriekin eragin ere), karatulako 31.3 puntuan ezarritako mugak errespetatuz eskainiko dira, baldin eta ezarri badira.
- c) Nolanahi ere, hobekuntzak banan-banan aztertuko dira, hau da, kontratazio-organoak kontratuaren barruan bat edo batzuk sartzea erabaki dezake, edo bat ere ez sartzea.

16.2.- Konfidentzialtasuna: beharrezkotzat joz gero, enpresak aukera du gutun-azal honetan sartutako eskaintzako informazio eta datuen artean isilpean gorde beharrekoak zeintzuk diren adierazteko, sekretu teknikoekin edo merkataritzakoekin zerikusia dutela eta; XI. eranskineko ereduaren bitartez egin behar du hori, eta eskaintzaren datu eta informazio horien eta sekretu tekniko edo merkataritzakoekin arteko lotura hori azaldu egin behar du. Eskaintza ekonomikoa inolaz ere ez da konfidentziala izango.

16.3.- Beste balorazio-fase batzuetako gutunazalak: karatulako 30.2.b) puntuan beste balorazio-faseren bat ezarritako gero, karatularen 31.2 puntuan ezarritako fase bakoitzeko gutun-azal bat aurkeztu behar da. Gutun-azal horietan, balorazio-fase bakoitzerako ezarritako agiriak sartu behar dira, eta aparteko orri batean, agiri guztien zerrenda aurkeztu behar da. Gutun-azal bakoitza zein balorazio-faseri dagokion zehaztu behar da 31.2 puntuan ezarritako zenbakia idatzita; gainera, agiri honetako 12.2 klausulan adierazitako datu guztiak agertu behar dira (kanpoaldeko adierazgarriak).

Eskaintza ekonomikoa aurkeztean, kontuan eduki behar da 14.2.2 klausulan ezarritakoa.

Hobekuntzak aurkeztean, berriz, 16.1 klausulan azaldutakoa hartu behar da kontuan.

Enpresak beharrezkotzat joz gero, gutun-azal bakoitzeko konfidentzialtasun-agiri bat (16.2 klausula) egin daiteke.

III.- GUTUN-AZALAK IREKI, KALIFIKATU ETA BALORATZEA.

17.- A GUTUN-AZALA («GAITASUNARI ETA KAUDIMENARI BURUZKO AGIRIAK») IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA.

Agiriak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio-mahaiak lehenbizi A gutun-azalean («Gaitasunari eta kaudimenari buruzko agiriak») aurkeztutako agiriak aztertuko ditu. Garaiz eta behar bezala aurkeztutakoak soilik onartuko dira.

Agirietan konpontzeko moduko akatsik aurkituz gero edo zerbait falta bada, kontratazio-mahaiak enpresari jakinaraziko dio gutun edo ofizio bidez, edo telegrama, telex edo telekopia bidez; eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera epea emango die okerrak edo gabeziak zuzentzeko. Aurrekoa gorabehera, kontratazio-mahaiak akatsen eta gabezien berri eman behar du iragarkien bidez. Iragarkiak sistema elektronikoen bidez, kontratatzaile-profilaren bidez edo prozedurarako egokia den beste bitartekoren bat erabiliz zabal ditzake.

Aurreko klausulan ezarri den bezala akatsak eta gabeziak zuzentzea gorabehera, aurkeztutako agiriei eta ziurtagiriei buruzko argibideak eska ditzake kontratazio-mahaiak, bai eta agiri eta ziurtagiri osagarriak eskatu ere, gaitasunaren eta kaudimenaren inguruko betekizunak betetzen diren egiaztatzeko. Enpresak bost eguneko epea izango du eskatutako argibideak edo ziurtagiri eta agiri osagarriak aurkezteko, eta ezingo ditu aurkeztu hurrengo paragrafoan aipatzen den adierazpena, betekizunak betetzen dituzten enpresak onartzekoa, egin ostean.

Agiriak kalifikatu eta akatsak edo gabeziak, egonez gero, zuzendu ondoren, gaitasunaz eta kaudimenaz ezarritako betekizunak betetzen dituzten enpresak zeintzuk diren zehaztuko du kontratazio-mahaiak, eta berariazko ebazpena emango du enpresa batzuk onartu eta beste batzuk baztertzeko (hauen kasuan, arrazoiak azalduko ditu).

Lizitazioan parte hartu duten enpresek kontratazio-mahaian kontsultatu ahal izango dute enpresa onartuen eta baztertuen zerrenda; zerrenda horretan, baztertuak izateko arrazoiak ere zehaztuko dira. Gainera, mahaiak argitara eman dezake zerrenda hori, iragarki-oholean iragarkia jarritz eta sistema elektronikoen bidez, kontratatzailearen profilaren bidez edo prozedurarako egokia den beste bitartekoren bat erabiliz. Nolanahi ere, zerrenda hori jendaurrean irakurriko da eskaintza ekonomikoen gutunazalak jendaurrean irekitzeko ekitaldian.

18.-C GUTUN-AZALA («APLIKATZEKO BALIO-JUDIZIOA BEHAR DUTEN IRIZPIDEAK») IREKITZEA ETA BALORATZEA (karatulako 31.1 puntuak gutun-azal hau aurkeztea eskatzen badu bakarrik).

Kontratazio-mahaiak, gutun-azal honetako agiriak berak ebaluatu behar baditu, lizitaziorako onartutako enpresak zehaztu ondoren eta B gutun-azala ireki aurretik, C gutun-azala («Aplikatzeko balio-judizioa behar duten irizpideak») jendaurrean irekiko du Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan ezarritakoari jarraiki, eta espedienteen jasoko du zein gutun-azal ireki duen eta bakoitzak zer agiri eduki duen barruan.

Gero, kontratazioa eskatu duenaren zerbitzu teknikoetara bidali ahal izango ditu agiriak, ezarritako irizpideen arabera azter ditzan, eta beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak eskatu ahal izango ditu.

Beharrezko informazioa jaso ondoren, kontratazio-mahaiak eskaintzak ebaluatuko ditu karatulako 30.2.1.b) puntuan adierazitako balorazio-irizpideak aplikatuta.

Karatularen 32. puntuak aditu-organismo espezializatu bat edo organismo tekniko espezializatu bat ezartzen badu gutun-azal horretan jasotako agiriak ebaluatzeko, dagozkion gutun-azalak ireki eta agiriok baloratzeko ardura duen organoari entregatuko zaizkio. Gutun-azal hori ireki izanaren berri jaso beharko da agiri batean.

Batzorde edo organismo horrek hartu izanaren agiria bidaliko du eta ebaluazioa egingo du, karatulan dagokion puntuak adierazitako epean. Epe horretan kontratazio-mahaiari igorriko dizkio analizatutako agiriak eta ebaluazio-txostena, eta, horiekin batera, beste orri bereizi batean, aztertutako agirien zerrenda bat.

Enpresa lizitatzailerik eskura izango dituzte ebaluazioaren emaitzak, kontsultatzeko. Nolanahi ere, argitara ere eman ahal daitezke, kontratazio-mahaiaren iragarki-oholean iragarkia jarritz, sistema elektronikoen bidez, kontratatzailearen profilaren bidez edo prozedurarako egokia den beste bitartekoren baten bidez. Nolanahi ere, emaitzak jendaurrean irakurriko dira eskaintza ekonomikoa jendaurrean irekitzeko ekitaldian.

19.-B GUTUN-AZALA («ESKAINZA EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEN DIREN IRIZPIDEAK») IREKITZEA ETA EBALUATZEA.

Eskaintzak jendaurrean irekitzeko egintza gauzatzeko epea gehienez ere hilabetekoa izango da, agiriak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita. Kontratazio-mahaiak, jendaurreko egintza horretan, parte hartzen duten enpresen kopurua adierazi eta guztien izenak irakurriko ditu, APKLA Oren 83. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta, gero, egintza horretan bertan, A gutun-azalean aurkeztutako agirien kalifikazioaren emaitzen berri emango du, hau da, zeintzuk onartu diren eta zeintzuk baztertu jakinaraziko du, bai eta zeintzuk izan diren baztertzeko arrazoiak.

Gero, C gutun-azala aurkeztu behar bada, ahoz emango du gutun-azala irekitzeak eta haietan aurkeztutako agiriak ebaluatzeak dakarten emaitzaren berri.

Ondoren B gutun-azalak («Eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluatzen diren irizpideak») irekiko ditu eta haietan aurkeztutako eskaintzak irakurriko ditu.

20.-BEHARREZKOA DENEAN, KARATULAN ESKATZEN DIREN BESTE GUTUN-AZAL BATZUK IREKITZEA.

Karatulako 30.2.2 puntuan beste balorazio-faseren bat egonez gero aurreikusita, eskaintza ekonomikoaren gutun-azala jendaurrean ireki baino lehen, kontratazio-mahaiak fase bakoitzari dagozkion gutun-azalak irekiko ditu, eskaintza ekonomikoa dutenak ez besteak, karatulako 31.2 puntuan ezarritako hurrenkeran. Gero, bidezko txosten teknikoak egin ondoren, zein proposamen onartzen diren (hurrengo fasera pasatuko direnak) eta zein baztertzeko diren (arrazoiak azalduta) zehaztuko du.

Fase bakoitzean, eskaintzen ebaluazioa (formula bidez kuantifikatu diren irizpideak aplikatuta) ezaugarri hori ez dutenena egin ondoren egingo da. Prozedura negoziatu publikitadedunean ez beste guztietan, formulak aplikatuta automatikoki ebaluatzen diren irizpideen haztapena balio-judizioaren bidez ebaluatzen diren irizpideena baino apalagoa bada, azken horiek aditu-batzorde batek edo erakunde tekniko espezializatu batek ebaluatuko ditu, karatulako 32. puntuan ezarritakoaren arabera. Eskaintza ekonomikoak jendaurrean irekitzeko egintzan, eskaintzak ireki baino lehen, enpresei aurreko faseen ebaluazioaren emaitzen berri emango zaie.

21.- KONTRATAZIO-SISTEMA ELEKTRONIKOAN GUTUN-AZALAK IREKITZEA.

Lizitazio telematikoa, kontratazio-mahaia Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko abuztuaren 16ko Aginduko III. kapituluaren lizitazio elektronikorako ezarritako prozedurari lotuko zaio, eta agindu horretako IV. kapituluaren ezarritako jakinarazpen elektronikoa erabiliko du gertaeren berri emateko.

Administrazioak, daukan baliabide teknikoak kontuan hartuta, prozeduran interesatuta daudenen eskura jarriko du gutun-azalak jendaurrean irekitzeko egintzetarako sarbide birtuala.

Eusko Jaurlaritzak web kamera bat jarri du gutun-azalak jendaurrean irekitzeko egiten diren aretoan, bertaratzen ez direnek ikusi ahal izateko. Web kamerak hartzen dituen irudiak Internet bidez transmitituko dira «Real Player» bistaratze-programarako egokitutako streaming prozedura batez baliatuta. Posible izango da «Real Player» programa dohainik eskuratzea www.realplayer.com helbidean. Gutun-azalak irekitzeko, Eusko Jaurlaritzak streaming helbidea jarriko du eskura lizitazio elektronikoko aplikazioko Gutun-azalak irekitzeko ekitaldia Bistaratzeko funtzionalitateen bitartez.

22.- ESKAINZAK EZ ONARTZEA.

Eskaintza hauek ez dira onartuko:

- Administrazioak ebazpena emateko ezinbestekoa irizten dion zerbait jakitea eragozten duten kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo zirrimarrak dituzten eskaintzak.
- Aztertutako eta onartutako agiriekin bat ez datozen eskaintzak.
- Lizitazioaren aurrekontua gainditzen duten eskaintza ekonomikoak.
- VI. eranskineko eredutik nabarmen aldatzen direna eskaintza ekonomikoak.
- Eskaintzaren zenbatekoan errore nabarmena ageri duten eskaintza ekonomikoak.

- f) Lizitatzailak onartzen badu eskaintza biderazina dela errore edo funtsgabetasunen batengatik, eskaintza ez da onartuko.

23.- ESLEIPEN-PROPOSAMENA.

23.1.- B gutun-azala jendaurrean ireki ondoren, kontratazio-mahaiak esleipen-proposamena egin eta kontratazio-organoari bidaliko dio, honako arau hauen arabera:

23.1.1.- Eskaintzak baloratzeko irizpide bakarra prezioa bada, kontratazio-mahaiak, B gutun-azalak irekitzeko egintzan bertan, kontratua preziorik baxuena eskaini duenari esleitzea proposatuko du, inguruabarrak direla eta hurrengo 23.2 klausulan ezarritako esleipen-lehentasunak aplikatu beharra gertatu ezean. Gero, bertaratutako lizitatzaileri nahi dituzten oharrak edo erreserbak aurkez ditzaketela adieraziko die, eta azalduko die idatziz aurkeztu behar dizkiotela kontratazio-organoari, egintzaren ondoko bi egun baliodunetan, luzeen jota. Kontratazio-organoak, kontratazio-mahaiaren txostena jaso ondoren, berriazko ebazpena emango du erreklamazioei buruz behin-behineko esleipenaren erabakian.

23.1.2.- Eskaintzak baloratzeko hainbat irizpide aplikatzen badira, kontratazio-mahaiak, lizitaziora onartutako enpresek B gutun-azalean aurkeztutako agiriak eta, behar denean, C gutun-azalen ebaluazioaren emaitza (bai eta beste gutun-azal batzuen ere, karatulako 31.2 puntuan ezarritako kasuetan) bidaliko dizkio kontratazioa sustatu duen zuzendaritzari, bidezko zerbitzu teknikoek eskaintzei buruzko txosten tekniko orokorra egin dezaten. Txosten horretan, irizpide guztiak aztertu eta aplikatuko dira, beste gutun-azaleko agirien ebaluazioak errespetatuta. Halaber, kontratazio-mahaiak kontratua esleitzeko beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak eskatu ahal izango ditu.

Ondoren, kontratazio-mahaiak esleipen-proposamena egingo du eskaintzak baloratzeko irizpideen arabera eta, behar den kasuetan, ondoko 23.2 klausulan ezarritako lehentasunak kontuan hartuta.

23.2.- Esleipen-lehentasunak: balorazio-irizpideak aplikatuz bi proposamen edo gehiago berdinduta geratuz gero, ondoren adieraziko diren enpresek edukiko dute lehentasuna, betiere A gutun-azalean 13.2.14 klausulan ezarritako agiri frogagarriak aurkeztu badituzte:

- a) Gaitasun teknikoa frogatzean plantillan % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten langileen ehunekorik altuena daukaten enpresek (langile horiek plantillaren % 2 baino gehiago izan behar dira).
- b) Elkarlaneko kooperatibek eta halakoak biltzen dituzten bigarren graduako eta goragoko graduok.
- c) Kontratuaren xedea gizarte- edo laguntza-prestazio bat bada, berezko nortasun juridikoa duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek, baldin eta beren helburuak edo jarduerak kontratuaren xedearekin zerikusia badu.
- d) Bazterketa jasaten duten pertsonak laneratzeko eta gizarteratzeko lan egiten duten enpresek, baldin eta lanpostuen % 30 gutxienez ondoren adieraziko diren taldeetako pertsonentzat izateko konpromisoa hartzen badute (pertsona hauen egoera gizarte-zerbitzu publiko eskudunek egiaztatuko dute):
 - Gizarteratzeko gutxieneko errenta edo antzeko prestazioen bat jasotzen dutenak (kasuan kasukoa, autonomia-erkidegoan ezarritako izendapenaren arabera).
 - Aurreko paragrafoan aipatzen diren prestazioak jaso ezin dituzten pertsonak (eskaten den egoitza-aldia edo erroldatze-aldia edo unitate hartzailea eratzeko eskaten den aldia ez betetzeagatik edo legez ezarritako kobrantzaldia amaituta egoteagatik).
 - Hemezortzi urtetik hogeita hamarrera bitarteko gazteak, adingabeak babesten dituzten erakundeetatik datozenak.
 - Drogadikzio- edo alkoholismo-arazoak daukaten pertsonak, hain zuzen ere errehabilitatzen edo gizarteratzen ari direnak.
 - Lanean aritzeko aukera duten presoak, baldintzapean askatutakoak eta preso ohiak.
 - Desgaitasunen bat duten pertsonak.
- e) Bidezko Merkataritzako erakundetzat onartutakoek.

Lehentasunak aplikatzean, aurreko ezaugarrietako bat baino gehiago dauzkaten enpresak lehenetsiko dira. Enpresen aldi baterako elkarteen kasuan, lehentasunak lizitatzailerako bakoitzak elkartean duen parte-hartzearen ehunekoaren heinean aplikatuko dira.

Hala ere, proposamenen arteko berdinketak bere hartan segitzen badu, edo aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera ez badago lehenetsi beharreko enpresarik, honela esleituko da kontratua: esleipena egiteko hainbat balorazio-irizpide aplikatzen badira, haztapenean pisurik handiena daukan irizpidean punturik gehien lortu dituen enpresari esleituko zaio; hala ere berdinduta segitzen badute, irizpide bakoitzak lortu duen garrantziaren araberrako hurrenkera aplikatuko da; eskaintzak baloratzeko irizpide bakarra prezioa bada, kontratua zozketa bidez esleituko da.

- 23.3.- Argibideak.- Esleipen-proposamena egin baino lehen, kontratazio-mahaiak enpresei eskatu ahal izango die eman ditzatela idatziz eskaintzen alderdi batzuk ulertzeko argibideak. Argibideak ematean lizitatzailerak ezin izango dute aldatu eskaintzan adierazitako ezer. Hasieran, proposatutako eskaintzan ezarritakoa ulertzen laguntzen duen informazioa soilik hartu ahal izango da kontuan.
- 23.4.- Proposamena kontratazio-organoari bidaltzea.- Kontratazio-mahaiak eskaintzen zerrenda bidaliko dio kontratazio-organoari, eskaintzak baloratzeko irizpideen arabera goitik beherako hurrenkera sailkatuta, eta baztertutakoak zeintzuk diren zehaztuz; horrez gainera, aktak, egindako txostenak, esleipen-proposamena eta bidezko deritzen oharrak ere bidaliko dizkio.
- 23.5.- Ondorioak.- Kontratua esleitzeko proposamenak ez dio inolako eskubiderik ematen proposatutako lizitatzailerari administrazioaren aurrean. Hala ere, kontratazio-organoak ez badu kontratua proposamenaren arabera esleitzen, erabakiaren arrazoiak azaldu behar ditu.

IV.- BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENA ETA BEHIN BETIKO ESLEIPENA.

24.- BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENA.

24.1.- Arau orokorrak.

24.1.1.- Kontratua proposamenaren arabera esleitzea: oro har, kontratuaren behin-behineko esleipena kontratazio-mahaiak proposatzen duenaren alde egin behar da. Hala egin ezean, kontratazio-organoak arrazoitu egin behar du zergatik ez duen aintzat hartu proposamena. Hurrengo klausulan ezarritako kasuan, nahitaezkoa izango da arrazoitzea.

24.1.2.- Eskaintza anormal edo neurritz kanpokoak: kontratazio-mahaiak esleipenerako proposatzen duen eskaintzaren balioak anormalak edo neurritz kanpokoak badira eta kontratazio-organoak, enpresaren justifikazioa eta eskatutako txostenak kontuan hartuta, uste badu eskaintza ezin daitekeela bete balioak anormalak edo neurrigabeak direlako, behin-behineko esleipena sailkapenean hurrengo proposamen onenari egitea erabakiko du, baldin eta eskaintakoa administrazioaren gogara bete dezakeela uste badu eta ez bada anormala edo neurritz kanpokoak.

Balioak anormalak edo neurritz kanpokoak direnez argitzeko, ondokoak hartuko dira kontuan: balorazio-irizpide bakarra prezioa bada, APKLEOren 85. artikuluan araututako kasuak eta, ezarrita egonez gero, Karatulako 33.1 puntuan aipatutako murrizpena; aldiz, eskaintzak baloratzeko hainbat irizpide aplikatzen badira, balioak anormalak edo neurritz kanpokoak izateagatik eskaintza ezin bete delako presuntzio funtsatu gisa karatulako 33.2 puntuan ezarritako parametro objektiboak.

Eskaintza baten balioak anormalak edo neurritz kanpokoak direla adierazteko, aurretik informazioa eskatu behar zaie ustez eskaintza horretan sartzen direnei, aholkularitza teknikoak eskatu behar zaio dagokion zerbitzuari eta txostena kontratazio-mahaiari. Gainera, elkarren arteko lotura duten enpresek eskaintza ezberdinak aurkeztu badituzte lizitazioan, SPKLren 129.4 artikuluko bigarren paragrafoan eta APKLEOren 86.1 artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

Lizitazioaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu bada, Europako Ekonomia Erkidegoak kontratu publikoetarako duen aholku-lantaldearen aurrean ere justifikatu beharko da hartutako erabakia.

- 24.1.3.- Jakinarazpena eta argitalpena: behin-behineko esleipena lizitazioan parte hartu duten enpresa guztiei jakinaraziko zaie eta kontratazio-organoaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da.
- 24.1.4.- Informazioa eskatzea: enpresek informazioa eska dezakete eskaintza ez onartzeko arrazoiez eta erabakia esleipena eskuratu duenaren alde lerrarazi duten datuez. Informazioa eskaera jasotzen denetik bost egun baliodun pasatu baino lehen jasoko dute.
Kontratazio-organoak esleipenaren inguruko datu batzuk isilpean gorde ditzake uste duenean (espedientean behar bezala arrazoituz) informazio hori zabaltzeak arau baten aplikazioa eragotz dezakeela, kalte egin diezaiekeela onura publikoari edo enpresa publiko edo pribatuaren bidezko merkataritza-interesei, edo haien arteko lehia galaraz dezakeela; gauza bera egin dezake kontratua sekretua edo erreserbatua denean eta indarreko legeriaren arabera kontratua gauzatzeko segurtasun-neurri bereziak aplikatu behar direnean, bai eta Estatuaren segurtasunaren funtsezko interesak babesteko beharrezkoa denean ere (kasu honetan, babes-beharra SPKLren 13.2.d) artikuluan ezarritakoaren arabera adierazi behar da).
- 24.1.5.- Epea ez betetzea: kontratua ez bada ezarritako epearen barruan behin-behinean esleitzen, enpresa lizitatzailerik bertan behera utzi ahal izango dute eskaintza.
- 24.1.6.- Lizitazioa ezerezean geratzea: kontratazio-organoak ezin du adierazi lizitazioa ezerezean geratu dela eskaintzaren bat klausulen agirian ezarritako irizpideen arabera onargarria izanez gero.
- 24.1.7.- Administrazioak kontratua esleitzeari uko egitea eta prozedura bertan behera uztea: behin-behiko esleipena egin baino lehen, kontratazio-organoak uko egin diezaioke kontratua esleitzeari interes publikoa kontuan izanik (arrazoiak azaldu behar dira espedientean) edo, bestela, kontratua prestatzeko arau bat edo esleipen-prozedurari buruzko arau bat ezin konpontzeko moduan hautsiz gero, bertan behera utz dezake esleipen-prozedura.

24.2.- Eskaintzak baloratzeko irizpide bakarra prezioa denean.

Kontratazio-organoak egutegiko hamabost eguneko epea izango du, proposamenak jendaurrean ireki eta hurrengo egunetik aurrera, aurkeztutako proposamenak sailkatzeko (lehenengotik azkenera) eta kontratua kontratazio-mahaiak proposatutakoari behin-behinean esleitzeko ebazpena emateko (ebazpen arrazoitua), 24.1.2 klausulan ezarritako kasuan izan ezik (balio anormalak edo neurritz kanpokoak). Epe hori beste hamabost egun baliodunetz luzatuko da, proposamenak balioa anormalak edo neurritz kanpokoak dituelako adierazpena egiteko izapideei jarraitu behar zaienean.
Besterik zehaztu ezean, APKLEOren 85. artikuluan ezarritako kasuetan dauden eskaintzek balio anormal edo neurritz kanpokoak dituztela joko da.

24.3.- Hainbat irizpide eskaintzak baloratzeko.

Kontratazio-organoak bi hileko epea izango du, proposamenak jendaurrean ireki eta hurrengo egunetik aurrera, aurkeztutako proposamenak sailkatzeko (lehenengotik azkenera), eskaintzak baloratzeko ezarritako irizpideak aplikatuta.

25.- BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENDUNAK AGIRIAK AURKEZTEA.

25.1.- Behin-behineko esleipena kontratatzaile-profilean argitaratu eta hurrengo egunetik hamabost egun baliodun pasatu baino lehen, behin-behineko esleipendunak hau guztia frogatu beharko du:

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkala.
- b) Behin-behineko bermea eta berme osagarria, karatulako 7.2 puntuan eta 7.3 puntuan eskatuz gero.
- c) Iragarki ofizialen zenbatekoa ordaindu duela.
- d) Karatulan kontratuaren atalen baterako lanbide-gaikuntza edo -baimen jakin bat eskatzen bada eta enpresak azpikontratatzeko konpromisoa aurkeztu badu, eskritura publikoan formalizatu behar da.
- e) Karatulan ezartzen bada prestazioaren zati bat lanbide-gaikuntza edo -baimen jakin bat daukaten enpresa espezializatuek egin behar dutela eta enpresak azpikontratatzeko konpromisoa aurkeztu badu, eskritura publikoan formalizatu behar da.
- f) Kontratatzeko gaitasuna daukala edo kontratua gauzatzeko izendatutako baliabideak, hitzartutakoak, badauzkala frogatzeko, kontratazio-organoak eskatzen dituen agiri guztiak aurkeztu behar ditu.

25.2.- Zerga-betebeharrak beteta dauzkala frogatzeko ondoko agiriak aurkeztu behar dira (APKLAO, 13. eta 15. artikulua):

- a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria; Zergan alta emanda egon arren oraindik ordaindu beharrik sortu ez bada, alta-agiria. Ordainagirian jardueraren epigrafea agertzen ez bada, alta-agiria nahitaez aurkeztu behar da. Agiri hauetan, kontratuaren xede den jardueraren epigrafea agertu behar da, hain zuzen ere enpresari lanean ari den lurraldean jarduteko ahalmena ematen diona. Gainera, esleipendunak zerga horretan baja emanda ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du. Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialaren ziurtagiria eta ziurtagirian jasotakoa ez dela aldatu dioen erantzukizunpeko adierazpena (VIII. eranskina, 6.1 paragrafoa) aurkeztuz gero, enpresak ez dauka hemen aipatutako agiriak aurkeztu beharrik (salbuespena: zergan baja emanda ez dagoelako adierazpena, aurkeztu egin behar baitu).
- b) APKLEOren 15.2 artikuluan ezarritako betekizun formalak betetzen dituela baieztatzen duen ziurtagiria, Zerga Administrazio organo eskudunak emana. Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko inskripzio-ziurtagiria indarrean daukatela frogatzen dutenek ez dute edukiko ziurtagiri hau aurkeztu beharrik hura indarrean dagoen artean eta bertan adierazitako inguruabarrak aldatu ezean. Enpresak horren berri eman behar du kontratua formalizatzeko agirian, hau da, inskripzio-ziurtagiria indarrean dagoela eta bertan adierazitako ezer ez dela aldatu.

Enpresak ez baditu aurkeztu behar APKLEOren 13. artikuluan aipatzen diren zerga-betebeharretako aitortpen edo agiri guztiak edo horietako bat, horri buruzko erantzukizunpeko adierazpena egin behar du.

Karatularen 37.2 puntuak aukera emanez gero ziurtagiri telematikoak edo datuak alde aurreko baimenarekin telematikoki transmititzeko, eta behin-behineko esleipendunak baimen hori eman badu (VIII. eranskineko 6.3 puntua), zerga-betebeharrak bitarteko horien bidez bete izana egiaztatuz gero ez da beharrezkoa izango dagozkion agiriak aurkeztea.

25.3.- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dauzkala frogatzeko, administrazio-agintaritzaren eskudunak emandako ziurtagiri positiboa aurkeztu behar du, APKLEOren 15.2 artikuluan ezarritako betekizun formalak beteta. Salbuespenen bat aplikatu behar izanez gero, erantzukizunpeko adierazpenaren bitartez frogatu behar da. Baldin eta enpresak, prozeduran zehar, frogatu badu badaukala Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko indarreko inskripzio-ziurtagiria, ez du ziurtagiri hau aurkeztu beharrik izango inskripzioa indarrean dagoen artean eta inskripzio-ziurtagirian adierazitako inguruabarrak aldatu ezean. Enpresak horren berri eman behar du kontratua formalizatzeko agirian, hau da, inskripzio-ziurtagiria indarrean dagoela eta bertan adierazitako ezer ez dela aldatu.

25.4.- Behin-betiko bermea eta berme osagarria, karatulan eskatuz gero, agiri honetako 13.2.12 klausulan ezarri den bezala eratu eta frogatu behar dira.

25.5.- Iragarki ofizialak ordaindu direlako frogagiria; esleipendunak kontratuari buruzko iragarkien argitalpen bakarra ordaindu behar du, Estatuko Aldizkari Ofizialekoa eta EHAAkoa.

25.6.- Karatulako 37. puntuak aukera ematen badu, behin-behineko esleipendunak bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabili ahal izango ditu eskatzen zaizkion frogagiriak aurkezteko. Administrazioak bere kabuz erantsiko dizkio espedienteari.

26.- KONTRATUA BEHIN BETIKO ESLEITZEA.

Kontratazio-organok, behin-behineko esleipendunari dokumentazioa aurkezteko emandako 15 egun balioduneko epea amaitu eta hurrengo egunetik hamar egun baliodun pasatu baino lehen, behin betiko bihurtuko du behin-behineko esleipena, baldin eta esleipendunak eskatutako agiri guztiak aurkezten baditu.

Kontratazio-organoren behin betiko esleipenaren bidez burutuko da kontratua.

Beharrezko baldintzak bete ez eta, ondorioz, kontratua ezin bazaio behin betiko esleitu behin-behineko esleipendunari, beste deialdi bat egin aurretik, kontratazio-organoak eskaintzen sailkapenean hurrengo lizitatzaileri eman ahal izango dio behin-behineko esleipena, posible bada eta esleipendun berriak ados dagoela adierazten badu. Ados badago, hamar egun balioduneko epea edukiko du, behin-behineko esleipenak berekin dakartzan agiriak aurkezteko.

27.- BEHIN BETIKO ESLEIPENA JAKINARAZTEA ETA ARGITARA EMATEA.

27.1.- Behin betiko esleipena SPKLren 137. artikuluan eta azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoarekin bat etorritz jakinaraziko da. Jakinarazpena bitarteko elektronikoez egiteko, agiri honen III. eranskinean eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko abuztuaren 16ko Aginduan ezarritakoa hartuko da aintzat.

Interesatuak informazioa eska dezakete eskaintza edo proposamena ez onartzeko arrazoiez eta erabakia esleipena eskuratu duenaren alde lerrarazi duten datuez. Eskaera jasotzen denetik hamabost egun pasatu baino lehen jasoko dute informazio hori.

Kontratazio-organoak esleipenaren inguruko datu batzuk isilpean gorde ditzake uste duenean (espedientearen behar bezala arrazoituz) informazio hori zabaltzeki arau baten aplikazioa eragotz dezakeela, kalte egin diezaiekeela onura publikoari edo enpresa publiko edo pribatuaren bidezko merkataritza-interesei, edo haien arteko lehia galaraz dezakeela; gauza bera egin dezake kontratua sekretua edo erreserbatua denean eta indarreko legeriaren arabera kontratua gauzatzeko segurtasun-neurri bereziak aplikatu behar direnean, bai eta Estatuaren segurtasunaren funtsezko interesak babesteko beharrezkoa denean ere (kasu honetan, babes-beharra SPKLren 13.2.d artikuluan ezarritakoaren arabera adierazi behar da).

27.2.- Behin betiko esleipena kontratatzaile-profilean argitaratuko da; gainera, zenbatekoa SPKLren 138.2 artikuluan ezarritakoa baino gehiago bada, artikuluko horretan ezarritakoaren arabera dagozkion aldizkari ofizialetan ere argitaratuko da. SPKLren 138.3 artikuluan ezarritako kasuetan, Europako Batzordeari jakinarazi behar zaio.

V.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

28.- KONTRATUA FORMALIZATZEKO EPEA ETA KONTRATUA EZ FORMALIZATZEAREN ONDORIOAK.

Enpresa esleipendunak 10 egun balioduneko epea edukiko du, behin betiko esleipena jakinarazten zaionetik, kontratua formalizatzeko administrazio-agiria sinatzeko. Lizitazio elektronikoa erabili dutenek kontratazio elektronikoa sistemaren bitartez formaliza dezakete kontratuaren agiria.

10 egun balioduneko epe horretan, eta kontratua sinatu baino lehen, ondoko ziurtagiri hauek aurkeztu behar dira:

- Karatulako 8. puntuan berariaz eskatzen diren aseguru-polizak edo ziurtagiriak.
- Giza baliabideak eta baliabide materialak izendatzeko konpromisoan (VII. eranskinean aipatzen da) sartutako giza baliabideak eta baliabide materialak eskura dituela frogatzen duten agiriak.
- Karatulan ezartzen bada prestazioa gauzatu duten langileen izenak eta lanbide-kualifikazioak zehaztu behar direla, esleipendunak frogatu behar du egiaz dituela eskura.
- Esleipenduna enpresa batzuen aldi baterako elkarte bada, eratze-eskrittura publikoa aurkeztu behar du (*SPKLren 48. artikulua*); elkarteak kontratuak adina iraun behar du.

Espedientea presazkoa dela adierazi bada, kontratua formalizatu gabe ekin dakioke lanari, behin betiko bermea eraturakoan (eskatzen bada), SPKLren 96.2.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Kontratua, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, ezin bada formalizatu lehen adierazitako epe horretan, administrazioak kontratua suntsitzea erabaki dezake. Aurretik, baina, enpresak esateko duena entzun beharko du, indarreko legerian ezarritako betekizunak betez. Kasu horretan, kontratistak galdu egingo du bermea, eta eragindako kalte eta galerak ordaintzeko eskatuko zaio.

Kontratua SPKLren 135.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz suntsitu ondoren (arau harmonizatupeko kontratua ez bada), kontratazio-organoak eskaintzen sailkapenean hurrengo lizitatuzaileari eman ahal izango dio behin-behineko esleipena, posible bada eta esleipendun berriak ados dagoela adierazten badu. Ados badago, hamar egun balioduneko epea edukiko du behin-behineko esleipenak berekin dakartzan agiriak aurkezteko.

VI.- KONTRATUA GAUZATZEA.

29.- OBRAREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA, KONTRATUAREN ARDURADUNA ETA AGINDU-LIBURUA.

29.1.- Kontratazio-organoak pertsona bat izendatu ahal izango du kontratuaren arduraduna izan dadin. Pertsona horrek kontratuan ezarritako prestazioaren gauzatzea zuzendu eta ikuskatuko du; hain zuzen ere, prestazioa behar bezala gauzatzen dela ikuskatuko du eta horretarako jarraibideak emango ditu, kontratazio-organoak ematen dizkion ahalmenez baliatuta.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, erakunde kontratatzaileari atxikia zein harekin zerikusirik ez daukana, baina titulazio eta kualifikazio egokiak eduki behar ditu. Bere lana egiteko laguntzaileak eduki ditzake agindupean, eta haiek beren lanbide-tituluen edo ezagutza berezien arabera jardungo dute. Arduradunak eta bere laguntzaileek kontratuaren zuzendaritza osatuko dute.

Kontratuaren arduraduna eta bere laguntzaileak noiznahi joan ahal izango dira prestazioa egiten den lekura; halakoetan, kontratistak izendatutako pertsona haiekin joango da.

29.2.- Administrazioak idatziz jakinaraziko dio enpresa kontratistari kontratazio-organoak egindako izendapena. Kontratua gauzatzen ari dela izendapena aldatzen bada, hori ere idatziz jakinaraziko zaio enpresa kontratistari.

29.3.- Administrazioak egoki iritiz gero, kontratistak agindu-liburua baliatu eta eduki behar du, eta zuzendaritzaren eskura eduki, hark alde zuzenetik behar bezala eginbidetuta, egokiesten dituen aginduak, jarraibideak eta berriemateak idazteko bertan (sinadurarekin baimenduko ditu). Enpresa kontratistak jarraibide horiek jaso izanaren agiria sinatu behar du, bere kabuz zein ordezkariaren bitartez.

29.4.- Agindu-liburua zuzendaritzak erabakitzen duenean irekiko da eta bermealdia amaitutakoan itxiko.

30.- LANAK HASTEAK.

Lanak hasteko egun ofiziala, kontratua gauzatzeko epea kontatzen hasteko, agiri honetako 8.1 klausulako bigarren paragrafoan ezarri da.

31.- EPEAK BETETZEA ETA KONTRATUA GAUZATZEN BERANDUTZEA.

31.1.- Kontratistak, ezarritako epean gauzatu behar du kontratua, eta behar den kasuetan, karatulan ezarritako epe partzialak ere bete behar ditu. Enpresa kontratistak obra osorik gauzatzeko ezarritako epea edo haren zati bat gauzatzeko ezarritako epea betetzen ez badu, hau da, epe horietako batean berandutzen bada, eta errua berari egotzi ahal bazaio, administrazioak bi aukera edukiko ditu: kontratua suntsiarazi edo zigor ekonomikoa ezarri (38. klausula). Horrez gainera, kontratistak berandutzeak sortutako kalte-galerak ordaindu beharko ditu.

31.2.- Obra gauzatzeko epeak betetzeko, SPKLren 196. artikuluan eta APKLEOren 98. eta 99. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

31.3.- Eperen batean berandutzea gertatzen bada kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, administrazioak luzapena eman dezake, hain zuzen ere berandutze-aldiaren iraupen berekoa; kontratistak, nolana ere, luzapen laburragoa eska dezake (*SPKL, 197.2 artikulua*).

32.- KONTRATUA GAUZATZEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTE KLAUSULA BATZUK.

- 32.1.- Arriskua noren kontura: enpresa kontratistak bere gain hartuko du kontratua gauzatzeak dakarren arriskua (*SPKL, 199. artikulua*).
- 32.2.- Kontratu-agiriei eta jarraibideei lotzea: kontratua gauzatzeko, kontratista zorrotz lotu behar zaie baldintza teknikoan agiriari, lan-programari eta agiri honetan eta karatulan adierazitakoaren arabera kontratuaren osagai diren gainerako agirietan ezarritakoari, eta aintzat hartu behar ditu horiek gauzatzeko edo interpretatzeko Administrazioaren ordezkariak idatziz ematen dizkion jarraibideak.
Kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako agiriak (haren osagai baitira) edo Administrazioak onartutako jarraibide, klausula-agiri edo denetarikoa arauak ez ezagutzeak ez du askatzen kontratista horiek guztiak bete beharretik.
- 32.3.- Lan-programa: karatulako 19. puntuan eskatzen bada, kontratistak lan-programa aurkeztu behar du. 1972ko martxoaren 8ko Aginduak (BOE, 77. zk., martxoaren 30ekoa) onartutako administrazio-klausula orokorren agiriko 23 - 25 bitarteko klausuletan azterlanak eta zerbitzu teknikoak kontratatzeaz xedatutakoa aplikatuko da.
- 32.4.- Administrazio kontratatzailearekiko lankidetzatza: administrazioak kontratuaren xedea behar bezala betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzu profesional guztiak eskuratu behar dizkio kontratistak, kontratuaren kostua gehitu gabe, esaterako: azalpen-bileretara joatea, jendaurreko informazioa ematea etab.
Kontratatutako prestazioaren barruan obra-zuzendaritza ere sartzen bada, obraren zuzendariak administrazio kontratatzaileari eman behar dizkio bere jardunean egin behar dituen txosten eta agiri guztiak, besteak beste «gauzatutako obraren tamaina eta ezaugarriak» deritzona (*APKLEO, 173. artikulua*).
- 32.5.- Kontratua gauzatzeko behar diren baimenak lortzea: kontratistak prestazioa gauzatzeko behar diren baimen eta lizentzia guztiak eskuratu behar ditu, hala publikoak nola pribatuak.
- 32.6.- Kontratua gauzatzeko egin beharreko gastuak: erakunde ofizial zein pribatuen baimenak, agiriak edo informazioa eskuratzeko egin behar diren gastuak kontratistaren kontura izango dira. Halaber, indarreko xedapenen arabera ezartzen diren zerga, eskubide, tasak eta konpentsazio guztiak ordaindu behar ditu, haietan ezarritako ordainketa-moduei eta zenbatekoei lotuta.
- 32.7.- Lanen eta gaitz-kalteen aseguruak eta erantzukizuna: enpresa kontratista izango da egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea. Halaber, kontratua gauzatzean hutsik edo okerrik egiten badu, metodo desegokirik erabiltzen badu edo lanak gaizki gauzatzen baditu eta ondorioz Administrazioari edo beste hirugarren bati kalte egiten badiu, bera izango da erantzulea (*SPKL, 281. artikulua*).
Kontratua hainbat profesionalen edo enpresen gauzatzen badute batera, denak izango dira erantzule solidarioak.
Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarrenek jasaten dituzten kalte-galerak kontratistak ordaindu behar ditu. Kalte-galerak Administrazioaren agindu zuzen eta berehalako baten ondorioz sortzen badira, berak edukiko du haiekiko erantzukizuna, legeek ezarritako mugen barruan (*SPKL, 198. artikulua*).
Enpresa esleipendunak nahitaezko aseguru guztiak eduki behar ditu, eta agiri honen karatulan ezartzen direnak ere bai.
- 32.8.- Baliabide materialak eta giza baliabideak, eta lan-harreman batzuetan subrogatzea: kontratistak, zerbitzua edo prestazioa kontratuan ezarritako epean behar bezala gauzatzeko behar diren ekipoa eta baliabideak jarri behar ditu, bai eta VII. eranskinean zehaztu direnak ere (bertan finkatutako dedikazioarekin) eta, Karatulako 29.6. puntuan ezarritako gero, kontratua gauzatzeko ardura duten pertsonen zerrendan sartutakoak ere bai.
Enpresako langileak enpresari ez beste inori atxikita egongo dira; kontratistak soilik edukiko ditu enplegatzaileari dagozkion eskubideak eta betebeharrak.
Administrazioak eskatuz gero, enpresa kontratistak kontratua gauzatzen lan egingo duten pertsonen izenak, lanbide-kategoriak eta kualifikazio teknikoak adieraziko ditu.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratua gauzatzen arduraldi eskusiboarekin lan egiten duten langileek ezin izango dute jardun beste ezertan. Gainera, enpresa kontratistak ezin izango ditu ordeztu eskaintzan azaltzen diren langile teknikoak, Administrazioak berariazko baimena eman ezean.

Administrazioak desegokitzat jotzen dituen elementu guztiak bazter ditzake. Hala ere, enpresak ebazpenaren kontrako erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio Administrazioari, eta, horretarako, egutegiko hamar eguneko epea edukiko du Administrazioak ebazpena idazki bidez jakinarazten dionetik.

Legez ezarrita badago, kontratista dagozkion lan-harremanetan subrogatu behar da.

- 32.9.- Kontratataren betebeharrak lan-arloan, Gizarte Segurantzarekin, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan: enpresa kontratistak lanaren arloan, Gizarte Segurantzaren arloan, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete behar ditu, ondoko hauek bereziki:
- 32.9.1.- Gauzatu beharreko prestazioak lan-ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, kontratistak bertan ezarritako xedapenak bete behar ditu.
- 32.9.2.- Enpresa kontratistak langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko behar diren laneko segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu.
- 32.9.3.- Halaber, indarreko araudiak lan-arriskuak prebenitzeko ezarritako betebeharrak beteko ditu eta, kontratatutako jarduera hasi aurretik, ondoko betebeharrak bete dituela frogatu behar du:
- a) Indarreko legeriarekin bat datorren prebentzio-antolamendua ezartzea.
 - b) Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratzea urtarilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikulua araberako laneko arriskuen prebentzio-plan bat ezarri eta aplikatuz. Baldintza hori frogatutaz joko da OHSAS 18001 Arauan, LANEren segurtasun- eta osasun-sistemei buruzko jarraibideetan edo beste arau baliokide batean oinarritutako laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezarrita edukitzearekin, baldin eta sistema horrek eskatzen diren neurriak betetzen diren edo ez ebaluatzen eta egiaztatzen badu. Beste edozein bide egokiren bidez ere froga daiteke betebeharrak bete dela.
 - c) Kontratutako jardueraren arriskuak ebaluatzea eta prebentzio-jarduera planifikatzea.
 - d) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legeko V. kapituluaren ezarritako kontsulta eta parte-hartzea nola gauzatu den arautzen duen idatzizko prozedura bat edukitzea edo, hala balegokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileren aktak.
 - e) Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen diren edo ez kontrolatzeko prozedura edukitzea eta, beharrezkoa bada, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abarretan langile guztien segurtasuna bermatzeko ezarritako diziplina-neurriak hartzea.
 - f) Arriskuen ebaluazioari lotutako prebentzio-baliabideak eduki beharra eragiten duten lanpostuen edota jardueren zerrenda edukitzea.
 - g) Kontratua gauzatzen aritzen diren langile guztiek, enpresakoek zein kanpokoek, sartzekoan arrisku espezifikoak, babes-neurriak eta larrialdi-neurriak buruzko informazioa jasotzea, bai eta bere jarduerari eragiten dioten arriskuei buruz behar duten prestakuntza ere (31/1995 Legeko 18. eta 19. artikulua, 32/2006 Legea eta 1109/2007 Errege Dekretua), Planaren prozeduraren arabera. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko beharrezko prestakuntza eman izana.
 - h) Beharrezkoak diren banakako babes-ekipamenduak eman izanaren egiaztatzea, beharrezkoak balira.
 - i) Jangela- eta atsedeen-zerbitzu egokiak, higiene-zerbitzuak eta jantziak ematea, langileen kopurua eta lan-eremuen kokapena kontuan hartuta.
 - j) Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatzea, langileen atsedeen-egunak errespetatuz eta ordu osagarriak salbuespenezko kasuetan bakarrik eginez.

- 32.9.4.- Enpresak kontratuaren atal bat azpikontratatzan badu, aurreko betebeharren egiaztagiriak eskatu beharko dizkie azpikontratatuari, eta administrazio kontratugileari eman.
- 32.9.5.- Langileek lanean dabiltzala istripuren bat izanez gero edo kalteren bat jasanez gero, esleipendunak indarreko arauak xedatutakoa bete behar du; berak edukiko du horren erantzukizuna, inolaz ere ez Administrazioak.

33.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK.

33.1.- Hizkuntzaren inguruko baldintzak.

- 33.1.1.- Kontratuaren xede diren azterlanak, txostenak, proiektuak eta bestelako lan guztiak bi hizkuntza ofizialetan egin behar dira, are programa informatikoetako interfazeak ere (testuak eta entzutekoak). Honek salbuespena eduki dezake: gerta liteke baldintza teknikoan agirian ezartzea kontratuaren xede den prestazioa, beraren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, beste hizkuntza batean (edo batzuetan) egin behar dela.
- 33.1.2.- Kontratuak hirugarrenei edo herritarrei zerbitzu eman beharra edo haiekin harremanetan jarri beharra badakar, kontratua gauzatzeko orduan erabiltzaileekin edo pertsonekin izan beharreko harremanetan, erabiltzaileak edo hirugarrenak hautatzen duen hizkuntza erabili behar du enpresa esleipendunak komunikaziorako, ahoz nahiz idatziz. Hizkuntzetako bat berariaz hautatu ezean, enpresa esleipendunak bi hizkuntza ofizialetan bidali behar dizkie jakinarazpenak eta era guztietako berriemateak (fakturak eta bestelako trafiko-agiriak barne) pertsona fisiko eta juridikoei. Hala ere, herritarrek noiznahi balia dezakete hizkuntza hautatzeko eskubidea, eta eska dezakete hizkuntza bat bakarrik erabiltzeko.
- 33.1.3.- Normalean, administrazio kontratatzailearekin euskara erabiliko da kontratuak eragiten dituen harremanetan. Kontrata gauzatzeko, hauxe izango da «normalean euskara erabiltzea»:
 - a) Ahozko komunikazioetan, kontratua gauzatzen ari diren langileetatik euskara dakitenek, administrazio kontratatzailearekin aritzeko, euskaraz hitz egingo dute hasieran. Administrazio kontratatzaileak euskara erabiltzen badu kontratua gauzatzeko izendatutako langileekin eta ez badago inor hizkuntza hori ondo ezagutzen duenik, obra gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarriko beharko ditu administrazioarekin hizkuntza horretan jardun ahal izateko behar diren baliabideak edo behar den euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileak.
 - b) Idazkiak euskaraz eta gatzelaniaz egin behar dira, bi alderdiek euskara hautatu ezean.

33.2.- Gizarteratzearen eta laneratzearen inguruko baldintza bereziak:

- 33.2.1.- Enpresa esleipendunak konpromiso hau hartu behar du: kontratatuan ezarritako prestazioa gauzatzeko kontratatzen dituen pertsonen % 20, gutxienez, enplegua lortzeko zailtasun berezia duten langabeak izango dira. Langabe hauen ehunekoa kalkulatu da enpresa kontratistak eta, hala dagokionean, azpikontratistek kontratua gauzatzeko behar dituzten langileen guztizko kopuruaren arabera.
- 33.2.2.- Ondoko pertsona hauek hartuko dira laneratze zailtasun bereziak dituztenen taldekotzat:
 - a) Laneratze hitzarmena sinatuta izanik oinarrizko errenta jasotzen duten pertsonak (dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuak emandako ziurtagiria behar da, programa horren onuraduna dela frogatzen duena, alegia).
 - b) Inoiz lanean aritu ez diren 30 urtetik gorako emakumeak, eta bost urtez lanik egin gabe egon ondoren kontratatzen direnak (lan-bizitzaren txostena aurkeztu behar da frogatzeko).
 - c) Pertsona ezinduak, hain zuzen ere % 33ko minusbalioa edo handiagoa dutenak (erakunde ofizial eskudunak emandako urritasun-ziurtagiria aurkeztu behar da frogatzeko).
 - d) Etxeko indarkeriaren biktimak. Halakotzat joko dira indarkeria fisikoa edo psikikoa jasan dutenak bere ezkontidearen aldetik, edo afektibitate-harreman berberaz modu egonkorrean berari lotuta egon den pertsonaren aldetik, edo beren arbasoen, ondorengoan edo anai-arreben aldetik, baldin eta gertaera horiek kondena-epaiaren bidez edo biktimaren aldeko babes-aginduen bidez egiaztatu badira edo, salbuespen gisa, babes-agindua izapidetu bitartean salatzailea aipaturiko indarkeriaren biktima izateko zantzuak badaudela adieraziz Fiskaltzak eginiko txostenaren bidez.

- e) Gaixotasun mentala duten pertsonak (medikuaren txostena aurkeztu behar da frogatzeko).
- f) Guraso bakarreko familia direnak, baldin eta gutxienez hiru hilabetean egon badira inskribatuta langabe gisa. Honen ondorioetarako, halakotzat hartuko dira ordaindutako jarduerarik egiten ez duen ondorengo bat (edo gehiago) bere kargura duten pertsonak (hori frogatzeko, ondokoak aurkeztu behar dira: elkarbizitza-ziurtagiria; Familia Liburuaren kopia; ordaindutako jarduerarik egiten ez duen ondorengo bat -edo gehiago- bere kargura duela adierazten duen zinpeko aitortpena; autonomia-erkidegoko edo Estatuko dagokion lan-zerbitzu publikoak langabezia inskribatuta egondako aldiez egindako ziurtagiria).
- g) Gutxienez 6 hilabetean jarraian langabezia inskribatuta egon diren Europar Batasunetik kanpoko etorkinak (hori frogatzeko, autonomia-erkidegoko edo Estatuko dagokion lan-zerbitzu publikoak langabezia inskribatuta egondako aldiez egindako ziurtagiria aurkeztu behar da).
- h) Denbora luzean langabezia egon diren pertsonak, dagokion zerbitzu publikoan gutxienez 12 hilabetean lan-eskatzailer gisa inskribatuta egon direnak (hori frogatzeko, autonomia-erkidegoko edo Estatuko dagokion lan-zerbitzu publikoak langabezia inskribatuta egondako aldiez egindako ziurtagiria aurkeztu behar da).
- i) Gutxienez 3 hilabetean jarraian langabezia inskribatuta egon diren 45 urtetik gorako pertsonak (hori frogatzeko, autonomia-erkidegoko edo Estatuko dagokion lan-zerbitzu publikoak langabezia inskribatuta egondako aldiez egindako ziurtagiria aurkeztu behar da).
- j) Langabezia 5 - 12 hilabete jarraian egon diren pertsona gazteak, 16 - 30 urte bitartekoak (hori frogatzeko, autonomia-erkidegoko edo Estatuko dagokion lan-zerbitzu publikoak langabezia inskribatuta egondako aldiez egindako ziurtagiria aurkeztu behar da).
- k) Adingabeak babesteko erakundeetatik datozen pertsonak, baldin eta laneratze-prozesua erakundetik irten eta hamabi hilabete pasatu baino lehen hasten bada (dagokion erakunde-ziurtagiria aurkeztu behar da).
- l) Toxikomano ohiak (alkoholiko ohiak eta drogadikto ohiak). Halakotzat hartuko dira talde terapeutiko baten iritziz desintoxikatzeko eta menpekotasuna gainditzeko faseak gainditu eta 6 hilabete gorako jarraiko tratamenduan egon direnak (osasun-zentroaren ziurtagiria aurkeztu behar da).
- m) Espetxean dauden pertsonak, hain zuzen ere lan-kontraturik eduki ez eta espetxe-araubidearen arabera lanean jardun dezaketenak, eta langabezia inskribatuta dauden preso ohiak, baldin eta kontratazioa espetxetik irten direnetik 12 hilabete pasatu baino lehen egiten bada (dagokion erakunde-ziurtagiria aurkeztu behar da).
- n) Eskatzen duten pertsonak, baldin eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen iritziz laneratze esku-hartze edo jarduketa espezifikoren bat behar badute (oinarrizko gizarte-zerbitzuaren ziurtagiria aurkeztu behar da).
- o) Ekintza terrorista bat edo herritarren bakea eta segurtasuna larriki eragozteko asmoarekin ari diren talde armatuetako kideen ekintza bat jasan duten pertsonak. Berez talde armatu bateko kide izan gabe asmo horiekin berekin ari direnek egindako ekintzaren bat jasaten dutenak ere talde horretakotzat joko dira.

Laneratzeko betebeharrak hau egokitu egin daiteke baldin eta kontratuaren esleipenak aurreko plantilla subrogatzea baldin badakar edota kontratu berriak ez badu enpresa esleipenduna beste inor kontratatzerara behartzen. Kasu horiek salbuespenak dira; arrazoitu eta frogatu egin behar dira.

Aurreko paragrafo horretako kasua alde batera utzita, kontratuan ezarritako prestazioa gauzatzen arituko diren langileen % 20 enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten langabeak izateko betebeharra ezin betetzea ondoko kasuetan baino ez da onartuko: enplegu-zerbitzu publikoak eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek enplegu-eskaintzari erantzun ezin diotenean eta ezintasun hori egiaztatua denean; edo ekoizpena edo antolamendua, edo inguruabar teknikoak edo ekonomikoak direla-eta ezinezkoa denean. Kasu hauetan, kontratuaren xede diren prestazio-moten arabera egokia izanez gero, enpresa esleipendunak kontratuaren zenbatekoaren % 5 gutxienez azpikontratatu behar die 2273/1985 Errege Dekretuan jasotako Lan Zentro Berezien Erregistroan edo abenduaren 26ko 305/2000 Dekretuak araututako Laneratze-enpresen Erregistroan inskribatutako enpresei. Horretarako, enpresa esleipendunak aipatutako erregistroetan inskribatutako enpresen zerrenda eskatu behar dio Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari.

33.3.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko baldintza bereziak:

- 33.3.1.- Kontratua gauzaterakoan, enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatu behar du, hala tratuan nola enplegua lortzeko aukeran, sailkapen profesionalean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, kontratua azkentzean, ordainsarrietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, eta lanaldiaren iraupenean eta antolaketan. Halaber, kontratua gauzaterakoan, enpresa kontratistak edo azpikontratistak lanean ari diren pertsonen bizitza pertsonala, familiakoa eta lana uztartzen laguntzeko neurriak ezarri behar ditu.
- 33.3.2.- Gainera, 10 langile baino gehiago dituzten enpresa kontratistek edo azpikontratistek kontratua gauzatzen ari diren langileen kontrako sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena saihesteko neurriak bermatu behar dituzte, hala nola: jardunbide onerako kodeak prestatzea eta zabaltzea; informazio-kanpainak edo prestakuntza-ekintzak egitea; jazarpenari aurre hartzeko eta jazartuak izan diren salaketak edo erreklamazioak bideratzeko prozedura espezifikoak ezartzea.
- 33.3.3.- Kontratua gauzatzeko langile gehiago kontratatu behar badira eta enpresa kontratistaren edo azpikontratistaren plantillan emakumeen ehuneko desorekatuta badago, gutxienez emakume bat kontratatu behar du kontratuak irauten duen aldi osorako, edo aldi baterako ari den emakume baten kontratua mugagabe bihurtu. Plantilla desorekatutzat hartuko da emakumeen kopurua guztizkoaren % 40 baino gutxiago bada.

33.4.- Enpleguaren kalitatearen eta oinarritzko lan-eskubideen inguruko baldintza bereziak:

- 33.4.1.- Enpresa esleipendunaren plantillako langileen % 30ek gutxienez kontratu mugagabea eduki behar dute. Aurrekoa ez da bete behar enpresan kontratu mugagabea dutenen ehuneko plantilla osoaren % 80 baino gehiago den kasuetan.
- 33.4.2.- Ehuneko hori kalkulatu da kontratua gauzatzeko behar diren langileen guztizko kopurua oinarritzat hartuta; kopuru horretan, kontratua gauzatzen ari diren enpresa azpikontratisten langileak ere sartuko dira.
- 33.4.3.- Enpresa esleipendunak, gainera, ekoizpen-kateko langile guztien oinarritzko lan-eskubideak errespetatzen direla bermatu behar du. Horretarako, Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko hitzarmenak betearazi behar ditu, ondokoak, besteak beste: askatasun sindikalari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak; nahitaezko edo derrigorrezko lana kentzeari buruzkoak; arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, jatorri nazional edo jatorri soziala direla-eta enpleguaren eta okupazioaren arloetan gertatzen den diskriminazioa kentzeari buruzkoak; haurren lana abolitzeari buruzkoak.

33.5.- Laneko segurtasun eta osasunaren inguruko baldintza bereziak. Kontratistari eta azpikontratistari dagozkion betebeharrak hauek ditu esleipendunak:

- a) Prebentzio-planarekin bat etorrituz, zuzendaritza-lanetan diharduten eta beren jardueran eta erabakietan laneko arriskuen prebentzioa integratzeko beharrezko prestakuntza jaso duten pertsonak edukitzea plantillan.
- b) Prebentzio Planeko egiaztatze-prozeduran ezarritakoari jarraituz, prestazioen laneko segurtasunerako eta osasunerako arrisku berezia ekar ditzakeen elementuak aldizka ikuskatzeko prozedura ezartzea prebentzio-antolaketaren bidez. Prozedura horretan, Arriskuen Ebaluazioan / Laneko Segurtasuna eta Osasuna Planean ezarritako babes-neurri kolektiboaren aldizkako egiaztatpena eta norbera babesteko ekipamenduen erabilera eraginkorra sartu behar dira.
- c) Kontratua gauzatzeko langile etorkinak kontratatzen badira, komunikazio eraginkorrerako modua ematen duten prozedurak ezartzea prebentzio-sistema egokia bermatzeko.

34.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

34.1.- Konfidentzialtasuna. Kontratua dela eta enpresa kontratistak eskuratzen duen informazio guztia konfidentziala da. Administrazioak idatzizko baimena eman ezean, kontratistak eta berak kontratua gauzatzeko izendatutako pertsonak ezin dute euren onurarako erabili, ez eta beste inori eman ere, kontratatutako lanei buruzko informaziorik edo daturik, edo kontratua gauzatzea dela eta eskura dezaketen informaziorik edo daturik. Beraz, eskura dauzkaten bitarteko guztiak erabili behar dituzte lanaren emaitzak eta informazioa isilpean gordetzeko (SPKL, 124.2 artikulua). Ildo beretik, datu pertsonalik erabili behar ez den lanetan enpresak eta haren langileek ezin dute eskuratu halako daturik, eta isilpean mantendu behar dituzte zerbitzua egitean ezagutzen dituzten datu guztiak (Datu Pertsonalen Babesari buruzko Legea garatu duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuko 83.2 artikulua).

34.2.- Datu pertsonalen tratamendua. Hauxe da datu pertsonalen tratamendua: pertsona fisiko identifikatuei edo identifikagarriei buruzko datuak biltzeko, grabatzeko, gordetzeko, prestatzeko, aldatzeko, blokeatzeko eta ezabatzeko eragiketak eta prozedura teknikoak, automatizatuak zein automatizatu gabeak, eta komunikazioetan, kontsultetan, interkonexioetan eta transferentzietan gertatzen diren datu-konexioak. Kontratua betetzeko datu pertsonalak tratatu behar badira edo enpresa kontratistak edo azpikontratista batek datu pertsonalak erabili behar baditu, SPKLren hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritako aplikatuko da, bai eta arau hauek ere:

- 1.- Kontratistak tratamenduaren arduradunaren jarraibideak aintzat hartuta erabili behar ditu datuak.
- 2.- Datu pertsonalak kontratuaren xedea betetzeko baino ez dira erabili behar; ezin dira erabili kontratuan ezarritakoaz besteko erabilera baterako.
- 3.- Kontratua dela eta eskuratzen diren datu pertsonalak ezin zaizkio eman beste inori. Hori dela eta, kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalak edo haiek biltzen dituzten fitxategiak inori ez helarazteko, emateko, lagatzeko edo komunikatzeko, ez ahoz ez idatziz, ez baliabide elektronikoen bidez, ez paperean ez atzipen informatikoez baliatuta, nahiz eta ikusteko soilik izan.
- 4.- Kontratistak eta kontratuaren prestazioa gauzaten duten langileek Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 10. artikuluan ezarritakoa bete behar dute, hau da, datu pertsonalak sekretupean gorde behar dituzte. Betebehar honek indarrean jarraituko du kontratua azkendu ondoren (dela bete egin delako, dela suntsiarazi egin delako).
- 5.- Kontratistak, Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko eskatzen duena aintzat hartuta, kontratu honen xede diren lanak gauzatzeko erabili behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko neurri teknikoak, administratiboak eta antolamendu-neurriak ezarri behar ditu:
 - a) Hori dela eta, lanak hasi baino lehen enpresak datu pertsonalak erabiliko dituzten langile guztien zerrenda eman behar dio kontratazio-organismoari, datu hauekin: izen-deiturak, egitekoak eta lantokia. Kontratuko lanak egiten ari direla langile bati baja eman behar bazaio edo beste bat kontratatu behar bada, enpresa esleipendunak astebete pasatu baino lehen eman behar dio zerrenda berria kontratazio-organismoari. Bai enpresa esleipendunak, bai zerrendako langileek konpromisoa hartu behar dute, idazki formal baten bitartez, erabiltzen dituzten datu pertsonalak sekretupean gordetzeko.
 - b) Esleipendunak agiri honen karatulako 19. puntuan adierazten diren segurtasun-neurriak ezarri behar ditu datuen tratamendurako zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan eta programetan.
 - c) Kontratuaren prestazioa amaitutakoan, esleipendunak datu pertsonalak dauzkaten euskarri guztiak itzuli beharko ditu, edo fitxategi guztiak ezabatu. Datuak ezabatutakoan, ez da geratu behar berreskuratzeko aukerarik batere. Fitxategiak itzuli edo ezabatu direla akta baten bidez ziurtatuko da; akta esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatuko dute, eta, bertan itzulketaren edo ezabaketaren berri jasoko da.
- 6.- Kontratuaren indarraldian, administrazioak kontrolak egin ditzake ezarritako segurtasun-neurriak betetzen diren edo ez egiaztatzeko eta, beharrezkoa izanez gero, neurri zuzentzaile egokiak ezartzeko.

35.- EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIALA ETA INTELEKTUALA.

35.1.- Lanen jabetza.- Egindako lanak (fase guztietakoak) administrazioaren jabetzakoak izango dira. Hala bada, noiznahi eskatu ahal izango du prestazioen zati bat emateko, baldin eta behin betiko lan-programarekin bat badator eta lanak eragozten ez badira.

Halaber, enpresak administrazioari eskatu ahal dio prestazioa alde aurretik har dezala, eta administrazioak erabakiko du eskaera hori onartu edo ez.

35.2.- Industria-jabetza, jabetza intelektuala, lokuzio-eskubideak, irudi-eskubideak edo erabilitako elementuen gaineko edo lortutako produktuaren gaineko beste eskubide batzuk. Erabilitako elementuen edo sortuko produktuaren gaineko jabetza industrialeko edo intelektualeko eskubideak, lokuzio-eskubideak, irudi-eskubideak edo bestelakoak sortzen diren lanetan, klausula-agirietan besterik ezarri ezean berariaz, enpresa esleipendunak bere gain hartu behar du eskubide horien inguruko erreklamazio guztien erantzukizuna, eta bere kontura izango dira ordainketa guztiak, eta, gainera, erreklamazioek sortzen dituzten kalte-galeren ordaina eman beharko dio administrazioari, ordezkaritza- eta defentsa-gastuak barne. Beraz, enpresa kontratistak bere gain hartu behar ditu eskubideak eragiten dituzten elementuak eskuratzeko moduan edukitzeko kostuak, eta bermatu egin behar du betebeharrak.

Kontratazio honen bidez, administrazio kontratatzaileak aplikazio industriala edo ustiapen ekonomikoa eragin dezaketen jabetza industrialeko edo intelektualeko eskubide guztiak eskuratuko ditu. Eskubideok Euskadiko Ondarean izango dira egungo legerian aurreikusten den eperik luzeenean, jabari publikora pasatu arte. Eskubideok modu eksklusiboan edukiko ditu administrazioak; egungo ustiapen eta euskarri guztiei aplikatuko zaizkie eta munduko herrialde guztietan izango dira indarrean.

Horrenbestez, administrazioak beretzat gorde dezake produkzioaren jatorrizko formatua eta nahi adina kopia egin ditzake hura zabaltzeko, erakusteko edo nahi duen eran ustiatzeko edo hedatzeko.

Hain zuzen ere, jabetza intelektualeko eskubide hauek edukiko ditu administrazioak: obra kopiaitzeko, banatzeko, jendaurrean zabaltzeko eta eraldatzeko eskubideak, eta ustiapen ekonomikoa eragin dezaketen gainerako guztiak.

Enpresa kontratistak eta kontratuan aritzen diren pertsonak ezin izango dute erabili obra beren onurarako, ez obraren edo filmazio, testu, marrazki eta argazkien atalak hirugarren batzuei eman, ez eta osorik ez partzialki argitaratu, administrazio titularrak idatzizko baimena berariaz eman ezean. Nolanahi ere, betebeharrak ez betetzeagatik sortzen diren kalte eta galeren erantzulea enpresa kontratista izango da. Kontratuaren xede diren lanen ondoriozko material guztiak administrazioaren jabetzakoak izango dira. Enpresa esleipendunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskatzen dizkion agiri guztiak sinatu behar ditu klausula honetan aipatutako eskubide guztiak eskuratzeko.

36.- LAN AKASTUNAK EDO GAIZKI GAUZATUAK.

Karatulan ezarritako bermealdia igaro arte, enpresa kontratistak erantzukizuna du kontratatutako lanak behar bezala egin daitezen, bai eta haietan gertatzen diren akatsena ere. Ez du erantzukizun horretatik salbuetsiko, eta eskubiderik ere ez dio emango, administrazioaren ordezkariak lanok aztertu edo ikuskatu izanak, egiten ari ziren bitartean, edo ontzat eman izanak, egiaztapen, balorazio edo ziurtapen partzialetan. Enpresa kontratistak ez du lan akastun edo gaitzak eginaren inolako erantzukizunik izango, akatsa edo okerra administrazioak berak emandako agindu baten ondorio zuzena eta berehalakoa bada.

Administrazioak uste badu egindako lana ez datorrela bat kontratuan ezarritakoarekin, APKLEOren 203. eta 204. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da; aldiz, prestazioa ez bada hartzeko modukoa, APKLEOren 204. artikuluan eta agiri honetako 41.3 klausulan eta hurrengoetan xedatutakoa aplikatuko da.

Hain zuzen ere, kontratuaren xedea obra-proiektu bat osorik egitea bada, ondokoak hartu behar dira kontuan:

- 1.- Kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak, gabezia teknikoak, errakuntza materialak eta lege edo araudietako xedapenak ez betetzeak edo hausteak zuzentzeko, SPKLren 286. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.
- 2.- Baldin eta kontratistari egotz dakizkiokeen errakuntza edo ez-egiteengatik obraren benetako kostua proiektuan aurreikusitako aurrekontua baino % 20 gehiago edo gutxiago bada, SPKLren 287. artikuluko 2. idatz-zatian zehaztutako kalte-ordainak ezarriko zaizkio, dagokion espedienteaz izapidetu ondoren (espediente horretan, interesdunari entzun egingo zaio esateko duena).
- 3.- Oro har, enpresa kontratistak ondokoen erantzukizuna edukiko du: obrak gauzatzeko edo ustiatzerakoan proiektuaren akats edo gabezia teknikoengatik, edo kontratistak berak egindako eta berari egotzi ahal zaizkion errakuntza materialengatik, ez-egiteengatik edo lege- edo araudi-xedapenak hausteengatik, administrazioari nahiz hirugarrenei egiten zaizkien kalteak eta galerak. Ordainak SPKLren 288. artikuluko 2. puntuan ezarritakoaren arabera izango dira.

37.- ENPRESA KONTRATISTARI EGITEKO ORDAINKETAK.

Enpresa kontratistak eskubidea du kontratuaren arabera, haren aldaketa onartuen arabera eta administrazioak idatziz emandako aginduen arabera gauzatu dituen lanak ordain dakizkion, hitzartutako prezioetan.

Lanak APKLEoren 199. eta 200. artikuluetan xedatutakoarekin eta agiri honen karatulan ezarritakoarekin bat etorritik baloratu eta ordainduko dira, lanak jasotzen edo ikuskatzen dituen pertsonak edo kontratazio-organoak izendatzen duen arduradunak aldeko txostena eman edo adostasuna adierazi ondoren.

Enpresa kontratistak eskubidea du, kontratua hasten denean, kontratuaren gauzatzea prestatzeko eragiketarik kontura kobratzeko, baldin eta kontratuaren xedean jasota badaude. Horretarako, kontratazio-organoak baimena eman behar du alde aurretik. Prestatze-eragiketarik horien kostuaren % 20 kobratu ahal izango du gehienez, karatulan eta aplikatu beharreko arauetan (*SPKLren 200.3 artikulua eta APKLEoren 201. artikulua*) ezarritako baldintzei lotuta. Ordainketak ziurtatzeko bermea jarriko da.

38.- ZIGORRAK.

38.1.- Kontratazio-organoak zigorra ezarri ahal izango dio enpresa kontratistari ondoren adierazten diren ez-betetzeengatik, SPKLren 196. artikuluan ezarritakoari jarraituz (zenbatekoak beherago azalduko dira):

- a) Guztizko epea edo epe partzialen bat ez betetzeengatik, hau da, kontratua gauzatzen berandutzeengatik.
- b) Prestazioa gaizki betetzeengatik; kontratua gauzatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak izendatzeko konpromisoa, hizkuntzaren inguruko baldintzak edo kontratua gauzatzeari buruzko baldintzaren bat ez betetzeengatik edo gaizki betetzeengatik (*SPKL, 196.1 artikulua*).
- c) Ez-betetzeak edo gaizki betetzeak eskaintzak baloratzeko kontuan eduki diren irizpideei eragiten dienean (*SPKL, 134.6 artikulua*).
- d) Azpikontratazioarako ezarritako betebeharrak, baldintzak eta betekizunak ez betetzeengatik.
- e) Laneko segurtasun- eta osasun-plana ezarritako epean ez aurkezteengatik.

38.2.- Zigorren zenbatekoak ondokoak izango dira:

- a) a) letran adierazitakoa gertatzen denean, zigorraren zenbatekoa SPKLren 196. artikuluko 4. idatz-zatiaren arabera ezarriko da, karatulako 14. puntuan besterik finkatu ezan.
- b) b) eta c) letretako kasuetan, zigorraren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 1 izango da, non eta kontratazio-organoak ez duen uste haustea edo ez betetzea larria edo oso larria dela (arrazoiak adierazi behar ditu), eta, orduan, zigorraren zenbatekoa handiagoa izan daiteke, larria bada prezioaren % 5, eta oso larria bada % 10, gehienez. Haustea edo ez betetzea behin eta berriro gertatzea kontuan edukiko da larritasuna finkatzeko.
- c) d) letrako kasuan, zigorraren zenbatekoa azpikontratuaren zenbatekoaren % 50 izan daiteke, gehienez.
- d) e) letran azaldutako kasuan, zigorra haxe izango da: euro bat egunean kontratuaren prezioko 5.000 euroko; zigorraren zenbatekoa lehenengo ziurtagiritik deskontatuko da.

38.3.- Enpresa kontratista berandutu egin dela adierazteko ez da beharrezkoa izango administrazioak alde aurretik agindurik ematea.

- 38.4.- Kontratua gauzatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak izendatzeko konpromisoa, hizkuntzaren inguruko baldintzak edo kontratua gauzatzeari buruzko beste edozein baldintza ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik ezarri beharreko zigorra, kontratazio-organoak konpromisoa edo baldintzetako bat ez dela bete edo gaizki bete dela egiaztatzen duen unean ezarriko da.
- 38.5.- Kontratua ez betetzeak edo gaizki betetzeak eskaintzak baloratzeko irizpideren bati eragiten dionean, zigorrak une honetan ezarriko dira: kontratazio-organoa ohartzen denean, harrera-egintzan, kontratuan ezarritako edo hartutako konpromisoetako bat, esleipenerako garrantzitsua izan dena, ez dela behar bezala bete kontratistari egotzi beharreko arrazoiengatik.
Bete gabeko konpromisoa garrantzitsutzat hartuko da baldin eta, irizpide horretan lortutako puntuazioaren % 50 deskontatuz gero, kontratistaren eskaintza hobereana izango ez bazen.
- 38.6.- Zigorrak kontratistari egin beharreko guztizko ordainketetatik edo ordainketa partzialetatik kenduko dira, edo bermetik, SPKLren 196.8 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
- 38.7.- Gaizki egindako lanagatik ezarritako zigorra gorabehera, akatsak konpontzeko legez dagokion betebeharra izaten jarraituko du kontratistak.
- 38.8.- Zigorra ezartzeak ez du salbuesten kalte-galerak ordaindu behar izatetik (*SPKL, 198. artikulua*).
- 39.- KONTRATUA ALDATZEA ETA ETETEA.
- 39.1.- Kontratua aldatzeko, SPKLren 194., 195., 202., 282. eta 284.c) artikuluetan eta APKLEOren 102., 103. eta 202. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da. Kontratua interes publikoagatik eta ustegabeko kasuetan soilik alda daiteke (aldatu beharra azaldu behar da espedientean). Aldaketa horiek ezin izango diote kontratuaren funtsezko baldintzei eragin.
- 39.2.- Kontratuaren aldaketak (SPKLren 202. artikuluen arabera ezarritako aldaketa) haren xedeko unitate batzuk kentzea edo ezabatzea edo berriak gehitzea badakar, edo batzuk kentzea eta haien ordeztu beste batzuk ezartzea (kontratuan ezarritako batzuk), kontratistak nahitaez hartu behar ditu bere gain aldaketak, eta ez du edukiko eskubiderik unitateak murrizteagatik edo ezabatzeagatik kalte-ordainik eskatzeko, SPKLren 284. artikuluko c) letran ezarritako kasuetan izan ezik.
- 39.3.- Kontratuaren xedea produktu- edo jarduera-unitate kopuru jakina bada eta esleipendunak eskaintako prezioa hasieran ezarritako aurrekontua baino gutxiago bada, hasierako unitate-kopurua gehitu egin daiteke, Karatulan finkatutako gehieneko aurrekontua agortu arte.
- 39.4.- Kontratuaren xedea ezertan aldatu behar bada, kontratuaren arduradunak proposamena idatzi beharko du, eta, bertan, aldaketa arrazoitzeko, azaltzeko eta baloratzeko agiriak jaso beharko ditu. Administrazioak aldaketa onartzeko, lehenago araudian ezarritako txostenak aurkeztu behar dira, kontratistak esateko daukana entzun behar da eta gastua fiskalizatu behar da.
- 39.5.- Kontratuan aldaketak eginez gero, kontratua gauzatzeko epea kontratuaren zenbatekoa aldatzen den heinean berean luzatu edo laburtu behar da; hala ere, kasu berezietan (berezitasuna arrazoitu behar da), kontratistak eskatuta eta kontratuaren arduradunak txostena egin ondoren, epea zenbatekoa baino hein handiagoan aldatzea erabaki ahal izango da.
- 39.6.- Ez kontratistak ez kontratuaren arduradunak ezin dute sartu kontratuan behar bezala onarturik ez dagoen aldaketarik, ezta gauzatu ere. Lanak zuzendu, ikuskatu eta zaintzeko ardura duten pertsonen erantzukizuna gorabehera, kontratuaren xedean aldaketak sartzen badira administrazioaren baimenik gabe, enpresa kontratistak erantzukizuna edukiko du: prestazioa kontratuan ezarri bezala gauzatu beharko du, inolako ordainketa gehigarririk jaso gabe.
- 39.7.- Kontratuaren aldaketak SPKLren 28. eta 140. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik formalizatu behar dira.

39.8.- Kontratua suntsitzeko arrazoa izango da honako hau: kontratu baten aldaketa batek, edo elkarren segidan egindako batzuek, hasierako zenbatekoaren % 20koa baino aldakuntza handiagoa eragitea prezioan, dela gorantz edo beherantz, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan utzita; baita kontratuaren funtsezko aldaketa eragitea ere.

39.9.- Kontratuaren aldaketa batek haren prezioa aldarazten badu, bermea egokitu egin behar da prezio berriaren proportziokoa izateko; horretarako, hamabost eguneko epea egongo da, kontratua aldatzeko erabakia enpresaburuari jakinarazten zaion egunetik.

39.10.-Administrazioak erabakitzen badu aldaketa bat idatziz jasotzea eta horrek berekin badakar lan batzuk egiten ezin jarraitzea, kontratua, osorik edo zati bat (zer dagokion), aldi batez etetea erabaki beharko da.

39.11.-Administrazioak erabakitzen badu kontratua etetea, edo SPKLren 200.5 artikuluan ezarritakoa aplikatzeagatik eteten bada, SPKLren 203. artikuluan eta APKLEOren 103.1 artikuluan ezarritako etendura-akta egin behar da. Aktan honako hau zehaztu behar da: etendura aldi baterako, partziala edo erabatekoa den edo ez, eta prestazioaren zein atali dagokion; orobat, etendura gertatu den unean hitzartutako prestazioa zertan den hobeto ulertzen laguntzen duten datu guztiak. Aktari, etendako atalen zerrenda erantsi behar zaio.

40.- KONTRATUA LAGATZEA, AZPIKONTRATATZEA ETA ENPRESA HORNITZAILEEI ORDAINTZEA.

40.1.- Lagapena: kontratua SPKLren 209. artikuluan ezarritako betekizunak betez gero laga daiteke.

40.2.- Azpikontratazioa:

40.2.1.- Araubidea: enpresa kontratistak ituna egin dezake hirugarren batzuekin, prestazioaren zati bat gauza dezaten, salbu eta karatulako 15. puntuan hori ezinezkoa dela ezartzen bada, edo, salbu eta, kontratuaren ezaugarriak eta baldintzak direla-eta, argi badago esleipendunak berak zuzenean gauzatu behar duela kontratua.

Azpikontratatzea bidezkoa denean, SPKLren 210. eta 211. artikuluetan eta agiri honetako baldintzetan ezarritakoa aplikatuko da.

40.2.2.- Baldintzak: enpresa kontratistak ondoren adieraziko diren agiriak aurkeztu behar dizkio kontratazio-organoari, azpikontratazioarako ezarritako eguna baino egutegiko hamabost egun lehenago, gutxienez:

1.- Ondoko alderdiak argitzen dituen idazkia: egin nahi dituen azpikontratazioak; kontratuaren zer zati azpikontratatu nahi duen (bakoitza bere zenbatekoarekin); azpikontratazioak nortzuk izango diren; azpikontratazioak bakoitzak prestazioa gauzatzeko duen gaitasun justifikatua (dauzkan baliabide teknikoak eta giza baliabideak, eta esperientzia). Azpikontratazioak batek berari dagokion obra zatia egiteko behar den sailkapena edukiz gero, nahikoa izango da horren berri ematea, hau da, ez da gaitasuna frogatu beharko.

2.- Azpikontratazioak bakoitzarekin sinatuko duen agiriaren zirriborroa; bertan, ordainketa-epeak eta baldintzak hitzartuko dituzte alde biek, betiere SPKLren 211. artikuluan ezarritakoa errespetatuz.

3.- Gainera, proposatzen den azpikontratazioak bakoitzeko, frogagiri hauek aurkeztu behar dira:

a) SPKLren 49. artikuluan azaltzen den kontratazioak debekuren baten eraginpean ez dagoela frogatzen duen agiria (kontratuaren erreferentzia berariaz aipatu behar da). Horretarako, agiri honen VIII. eranskinetako erantzukizunpeko adierazpena aurkez daiteke, edo bestela SPKLko 62. artikuluan ezarritako bideetako batetik jo daiteke.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituelako frogagiria. Frogagiria agiri honetako 25.2 eta 25.3 klausuletan ezarritakoarekin bat etorri aurkeztu behar da.

40.2.3.- Eskaintza: baldin eta karatulako 15.3 puntuan ezarri bada eskaintzan egingo diren azpikontratazioak zehaztu behar direla, eta esleipendunak, hori betetzeko, azpikontratazioaren zerrenda aurkeztu badu eta bakoitzaren gaitasuna frogatu badu, ez du horren berri eman behar, ez eta aurreko 1. puntuan gaitasunaz ezarritakoa egin behar ere.

Aldiz, ondoko kasuetan horren berri eman behar da eta gaitasuna frogatu behar da: azpikontratatzeko den enpresa eskaintzako zerrendan ez badago; eskaintzan adierazi gabeko atalen bat azpikontratatzeko bada; eskaintzan, azpikontratistak zeintzuk diren enpresa-profilaren bidez zehaztu bada. Eskaintzan adierazitakoari lotzen ez zaizkion azpikontratuak ezingo dira egin aipatutako agiriak aurkezten direnetik hogeitun egun pasatu arte. Halaber, ezingo dira egin administrazioak, epe horretan, kontra dagoela adieraziz gero. Hala ere, badago aparteko salbuespen bat: SPKLren 210.2.c) artikuluko azken paragrafoan azaltzen den kasua.

40.2.4.- Kasu guztietan, behin azpikontratazioa formalizatutakoan, SPKLren 211. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik azpikontratistarekin sinatutako agiriaren ale bat aurkeztu behar dio enpresa kontratistak kontratazio-organoari, behar bezala sinatuta (ordainketak egiteko epeak eta baldintzak hitzartzen diren agiria). Hori betetzen ez badu edo ezarritako gainerako baldintzetako bat betetzen ez badu, ezin izango du azpikontratazioa egin.

40.3.- Enpresa hornitzaileei ordaintzea. Enpresa kontratistak SPKLren 211. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik itundu behar ditu hornitzaileekin prezioak eta ordainketak egiteko baldintzak.

VII.- KONTRATUA AMAITZEA.

41.- BETETZEA ETA HARTZEA (*SPKL, 205.1 eta 2, eta 283.1; APKLEO, 203. eta 204. artikulua.*).

41.1.- Enpresa kontratistak kontratuaren xedea bertan ezarritakoaren arabera eta administrazioaren gogara oso-osorik betetzeko joko da kontratua betetzat.

41.2.- Kontratua betetzat jotzeko ezinbestekoa da administrazioak prestazioa hartzeko egintza edo adostasuna emateko egintza formal eta positiboa egitea kontratuaren xedea eman edo egiten denetik hilabete pasatu baino lehen, non eta Karatulak ez duen 16.1 puntuan beste epe bat ezartzen.

41.3.- Administrazioak uste badu prestazioa ez dela egin kontratuan ezarritakoaren arabera, antzemandako akatsak edo okerrak zuzentzeko idatzizko jarraibideak emango dizkio enpresari. Idazkian zuzenketak egiteko epea finkatuko da.

41.4.- Enpresa kontratistak erreklamazioa aurkezten badu jarraibideen kontra, kontratazio-organoak ebatziko du.

41.5.- Enpresak ez badu idatzizko erreklamaziorik aurkezten jarraibideen kontra, haiekin ados dagoela pentsatuko da eta antzemandako akatsak zuzendu beharko ditu.

41.6.- Prestazioa ez da hartuko jarraibideak bete arte; hori gertatzen denean, akta egingo da.

41.7.- Akatsak ez badira ezarritako epean zuzentzen, administrazioak harrera ezetsiko du eta ez du edukiko ezer ordaindu beharrik; eta hala balegokio, ordaindutako zenbatekoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

41.8.- Nolanahi ere, lanak ez badira egin kontratuan ezarritakoaren arabera eta errua ezin bazaio Administrazioari egotzi, kontratazio-organoak harrera ezetsi ahal izango du eta ez du edukiko ezer ordaindu beharrik; aitzitik, baliteke ordaindutako zenbatekoa berreskuratzeko eskubidea edukitzea.

41.9.- Enpresa kontratistak eskubidea du kontratatutako prestazioa gauzatzeari buruz administrazioak egiten dituen oharrek ezagutzeko eta ohar horiei buruz esateko duena entzun dakion.

42.- BERMEALDIA (*SPKL, 205. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak eta 286.etik 288.era arteko artikulua*).

42.1.- Kontratu honen bermealdia Karatulako 16.2 puntuan ezarri da; prestazioa jasotzen denetik edo adostasuna ematen zaionetik zenbatuko da.

42.2.- Bermealdian, kontratistak bere kontura zuzendu behar ditu egindako lanean antzematen diren akats guztiak; gainera, akatsen erantzukizunak ondorioak sor ditzake, agiri honetan eta SPKLren 281. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

42.3.- Kontratistak ez baditu akatsak kontratazio-organoak emandako epean zuzentzen, kontratazio-organoak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 96. artikuluan nahitaezko betearazpenerako ezarritako baliabideak erabili ahal izango ditu.

42.4.- Bermealdia amaitu eta administrazioak ez badu ez eragozpenik adierazten ez salaketarik egiten, enpresa kontratistak ez du izango inolako erantzukizunik gauzatutako prestazioagatik. Nolanahi ere, hori ez da eragozpen izango SPKLren 286., 287. eta 288. artikuluetan obra-proiektuak egiteaz xedatutakorako.

43.- LIKIDAZIOA (*SPKL, 205.4 artikulua*).

Harrera edo adostasun akta egiten denetik hilabeteko pasatu baino lehen kontratuaren likidazioa egin behar da eta enpresa kontratistari jakinarazi behar zaio, bai eta horren emaitzako saldoa ordaindu ere, egonez gero. Likidatutako saldoa ordaintzen berandutuz gero, enpresa kontratistak berandutze-korrituak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasotzeko eskubidea edukiko du, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriak ezarri zituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

44.- BERMEA ITZULTZEA (*SPKL, 90. artikulua*).

44.1.- Bermea ez da itzuliko ez ezereztuko harik eta bermealdia amaitu eta kontratua behar bezala bete arte, edo kontratua kontratistaren errurik gabe suntsituzat jotzeko adierazpena egin arte.

44.2.- Kontratuaren likidazioa onartu eta bermealdia amaitu ondoren ez bada ezeren erantzukizunik sortu, jarritako bermea itzuli egingo da edo abala edo kauzio-asegurua ezereztatu egingo da. Horretarako, bermea eman zaion agintaritza horrek Euskadiko Diruzaintza Nagusiari edo dena delako erakunde publikoko antzeko organoari jakinarazi behar dio bermea kontratuari dagozkion betebeharren erantzukizunetik aske geratu den edo ez.

44.3.- Bermea itzultzeko erabakia bermealdia amaitzen denetik bi hilabete pasatu baino lehen hartu behar da, bai eta interesdunari jakinarazi ere. Bermealdia bukatutakoan, administrazioak zor dion zenbatekoa ordaindu behar dio kontratistari, bermealdia amaitu denetik bermea itzuli arteko korrituak gehituta (diruaren legezko korritu-tasa aplikatuta), baldin eta administrazioari egotzi beharreko arrazoi batengatik ezin gauzatu izan bada.

44.4.- Kontratuaren zati bat hartzen denean, kontratistak bermearen zati proportzionala itzultzeko edo ezerezteko eska dezake, ez gehiago, baldin eta karatulako 7.6 puntuan hori egiteko aukera berariaz aurreikusi bada.

44.5.- Kontratua laga bada, lagatzaileak jarritako bermea ez da itzuliko ez ezereztuko harik eta lagapen-hartzaileak berea formalki eratu arte.

44.6.- Kontratua gauzatzeko epea amaitu eta, enpresa kontratistari egotzi ezin zaizkion zergatiengatik, urtebete igarota ez bada harrera-egintza formalik eta likidaziorik izan, bermea itzuliko zaio kontratistari, edo ezereztu egingo da, beste luzapenik gabe, SPKLren 88. artikuluan aipatutako erantzukizunak argitu ondoren. Kontratuaren zenbatekoa 100.000 euro baino gutxiago bada, epea sei hilekoa izango da.

45.- KONTRATUA AZKENTZEA ETA SUNTSIARAZTEA.

45.1.- Kontratua betetakoan azkenduko da, edo suntsiarazita.

45.2.- SPKLren 277.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri, zerbitzu-kontratu bat azkentzen denean, administrazio kontratatzaileari atxikita kontratuan ezarritako lanetan aritu diren pertsonen egoera ezin da inolaz ere egonkortu administrazio kontratatzailearen langile gisa.

45.3.- SPKLren 284. artikuluan ezarritakoaren arabera, lege horretako 206. artikuluan ezarritako kasuetan ez ezik (karatulako 17. puntua) ondokoetan ere azkenduko da kontratua:

- a) Administrazioak, berari egotz dakioken arrazoiren batengatik, kontratua hasi gabe uztea, etenda, kontratuan bertan kontratua hasteko ezarritako egunetik kontatzen hasita sei hilabetetik gorako epean, klausula-agirian beste epe laburragoren bat aipatu ezean.
- b) Administrazioaren erabakiz, kontratuan atzera egitea edo kontratua urtebete baino gehiagoz etetea, klausula-agirian beste epe laburragoren bat aipatu ezik.
- c) Kontratuan aldaketak egitea, nahiz eta aldaketak elkarren jarraian egin, baldin eta, banan-banan edo denak batera hartuta, kontratuaren prezioa aldatzea badakarte hasierako prezioaren 100eko 20ko baino hein handiagoan, dela gorantz nahiz beherantz, betiere Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan dela; orobat kontratuaren aldaketa funtsezkoa badakarte.

45.4.- 279.2 artikuluan aipatutako kontratu osagarriak kontratu nagusiarekin batera azkenduko dira.

VIII.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK, JURISDIKZIOA ETA ERREKURTSOAK.

46.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK.

Kontratazio-organoak du administrazio-kontratuak interpretatzeko eta haiek betetzean sortzen diren zalantzak ebazteko prerrogatiba. Halaber, sinatutako kontratuak aldatu eta suntsiarazi ahal ditu, SPKLn eta hura garatzeko xedapenetan ezarritako mugen eta baldintzen arabera.

Kontratazio-organoak interpretatzeko, aldatzeko eta ebazteko prerrogatibez baliatuta eta organo eskudunen txosten juridikoa aztertu ondoren hartzen dituen erabakiak berehala bete beharrekoak dira.

47.- JURISDIKZIO ESKUDUNA.

Administrazio-kontratuaren interpretazioaren, aldaketaren, suntsiarazpenaren eta ondorioen inguruan gertatzen diren auziak kontratazio-organo eskudunak ebatziko ditu. Kontratazio-organoaren ebazpenek administrazio-bidea amaituko dute, eta, ebazpen horien kontra, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio hari hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi hileko epean, ebazpena jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

48.- KONTRATAZIOAREN ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA.

Arau harmonizatupeko kontratuetan, errekurtso berezia jarri ahal izango da behin-behineko esleipenaren erabakiaren kontra, lizitazioa arautzen duten agirien kontra eta prestazioaren ezaugarriak ezartzen dituzten agirien kontra, bai eta aurreko prozeduran onartutako izapide-egintzen kontra ere (egintza hauen kasuan, ezinbestekoa da egintzok esleipenean zuzeneko zein zeharkako eragina edukitzea, prozedurarekin jarraitzea eragozteko edo bidezko eskubide edo interesei kalte konponezina egitea edo defentsa-gabezia sortzea).

Errekurtso berezi hau SPKLren 37. artikuluan xedatutakoari lotuta izapidetu behar da. Errekurtsuaren ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezingo da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorri.

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIAREN I. ERANSKINA

PROZEDURA MURRIZTUAREN ETA PROZEDURA NEGOZIATU PUBLIZITATEDUNAREN KLAUSULA ZEHATZAK

Baldin eta karatularen goiburukoak eta 25.2 puntuak adierazten badute prozedura murriztu bat edo prozedura negoziatu publizitadedun bat izapidetzen ari dela, kontuan izan beharko da kontratazio-organoak aurretik hautatzen dituen enpresek soil-soilik aurkeztu ahal izango dituztela eskaintzak, karatularen 40. puntuan adierazitako betekizunen eta gutxieneko –eta, behar izanez gero, gehieneko– kopuruaren arabera.

Horretarako, agiri honetako klausulen inguruan, kontuan izan behar dira honako berezitasun hauek.

1.- Bi prozeduretarako berdinak:

1.1.- 12.1 klausularen (Aurkeztu beharreko agiriak. Aurkezteko epea) eta 13. klausularen («A gutunazala: Gaitasuna eta kaudimena») inguruan.

Eskaintza egiteko interesa duten enpresek, lizitazio-iragarkian ezarritako epearen barruan, A gutunazala (Gaitasuna eta kaudimena) baizik ez dute aurkeztu beharko, honako dokumentu hauekin:

a) Administrazio-klausula zehatzen agiri honetako VI. eranskinean jasotako parte hartzeko eskabidea.

b) 13.2.1 - 13.2.15 klausuletan zerrendatutako dokumentuak, 13.1 klausulan aurreikusitako salbuespenekin –eta, betiere, behin-behineko bermea (13.2.12) salbuetsita–. Izan ere, berme hori karatulan eskatzen bada, eskaintza aurkezteko gonbitea egiten zaien enpresek soil-soilik aurkeztuko dute, B gutunazalean.

c) Behar izanez gero, karatularen 40. puntuan eskatzen diren gainerako agiriak.

Behin gutunazal hori aurkeztuz gero, kontratazio-organoak, kontratazio-mahaiak proposatu ondoren eta karatularen 40. puntuan ezarritako hautapen-irizpideen arabera, enpresa onartuen hautapena egingo du, eta eskaintza aurkeztera gonbidatuko ditu. Gonbit hori aldi berean egingo die enpresa onartu guztiei, postaz edo ofizioz, edo telegramaz, telexez edo telekopiaz. Gonbita jasotzen dutenek, betiere, karatularen 31.1 puntuan edo 31.2 puntuan eskatutako gutunazalak aurkeztu beharko dituzte, gonbit horretan adierazten den epean. Gonbit-idazkian, proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzeko tokia, eguna eta ordua adieraziko dira.

1.2.- Behin behieneko bermea egiaztatzearen inguruan. Karatularen 7. puntuan hala eskatzen bada, behin behineko bermeari buruzko egiaztapena, eskaintza ekonomikoa jasotzen duen gutunazalean erantsiko da.

2.- Soil-soilik prozedura negoziatu publizitadedunari aplikagarri zaizkion berezitasunak:

2.1.- 23. klausularen (esleipen-proposamena) inguruan:

B gutunazala jendaurrean ireki ondoren, mahaiak eskaintza onartuak bidaliko dizkio kontratazioa eskatu zuen zerbitzuari, ireki eta lizitatzailerekin negoziazioa egin dezan, karatulan negoziazioari moduan adierazitako alderdiei buruz. Negoziazioen emaitzen gainean, txosten bat egingo du kasuan kasuko zerbitzuak, eta, lizitatzailerekin izenpetutako dokumentuarekin batera –negoziazioaren ondorioz eskainitako baldintza berriak dituenarekin batera, alegia–, kontratazio-mahaira bidaliko da. Hori ikusita, eta, behar izanez gero, bidezko txostenak egin ondoren, kontratazio-mahaiak esleipen-proposamena egingo du.

2.2.- 24.1.3 klausularen (behin behineko esleipenaren edukia) inguruan:

Behin behineko esleipenak zehaztuko eta finkatuko ditu kontratuaren behin betiko baldintzak.

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIAREN II. ERANSKINA

ATZERRIKO ENPRESAK
«GAITASUNA ETA KAUDIMENA» IZENENKO A GUTUNAZALEAN SARTU BEHARREKO
DOKUMENTAZIOA

- 1.- Atzerriko enpresak, Europar Batasuneko estatu kideetakoak (Erkidegoko enpresak).
 - 1.1.- Enpresa horiek, bakarrik aurkeztu nahiz enpresen aldi baterako elkartean aurkeztu, administrazio-klausula zehatzen agiri honetako 13. klausulan aipatutako agiriak sartu behar dituzte «Gaitasuna eta kaudimena» izeneko A gutun-azalean, honako berezitasun hauekin:
 - 1.1.1.- Baldin eta Europako Erkidegoko enpresa batek sailkapen-ziurtagiri bat aurkezten badu, edo Europar Batasuneko estatu kide batean kontratatzeko gaitasuna duten enpresarien zerrenda ofizial batean erregistratuta dagoela egiaztatzen duen antzeko beste agiri bat aurkezten badu, ziurtagiri edo agiri hori aurkeztea enpresa horrek kontratazio-organo guztien aurrean duten gaitasunaren presuntzioa izango da; hau da, SPKLren 49 artikulua 1. paragrafoko a), b), c) eta e) idatz-zatietan jasotakoari dagokionez, kontratatzeko debekurik ez dagoela hartzen da aintzat, 43. artikuluar dagokionez, jarduteko gaitasuna eta lanbide-gaitasuna dituela, eta 64. artikulua b) eta c) idatz-zatiei, 65. artikulua a), b), e), g) eta h) idatz-zatiei, 66. artikuluar, eta 67. artikulua a) eta c)tik i)ra arteko idatz-zatiei dagokionez, baduela kaudimena. Aurrekoari dagokionez, presuntzio-balio berbera izango dute erakundeek ziurtapenak egiteko europar arauen arabera egindako ziurtagiriek, enpresa kokatuta dagoen estatu kidearen legeriaren arabera emandakoek.

Aurreko paragrafoan aipatutako agirietan, enpresaria zerrendetan sartzeko edo ziurtagiria emateko erabili diren erreferentziak adierazi beharko dira, bai eta lortutako sailkapena ere.
 - 1.1.2.- Administrazio-klausula zehatzen agiriko 13.2.2 eta 13.2.4 klausulen inguruan, kokatuta dagoen herrialdean duten nortasunari buruzko identifikazio-agiria edo erkidegoko pasaporteak aurkeztu beharko dute, bai eta, norberaren izenean jarduten ez badu edo pertsona juridiko bat izanez gero, ordezkari zarako ahalordea gaztelaniara edo euskarara itzulia ere.
 - 1.1.3.- Administrazio-klausula zehatzen agiriko 13.2.3 eta 13.2.6 klausulen inguruan (jarduteko gaitasunari buruzkoak –*SPKLaren 47. eta 61.2 artikulua eta APKLEOaren 9. artikulua*–), enpresak kontratatzeko gaitasuna duela joko da, baldin eta, ezarrita dagoen Estatuko legediaren arabera, kasuan kasuko zerbitzua eskaintzeko gaituta baldin badago.

Jarduteko gaitasuna egiaztatze aldera, aurreko 1.1.1 puntuan aipatzen den Erkidegoko ziurtagiria edo antzeko dokumenturen bat aurkeztu ezean, enpresak A gutunazal horretan erantsi beharko du kasuan kasuko erregistroan (APKLEOaren I. eranskinean jasotakoetatik batean) erregistratuta dagoelako egiaztatzea, edo, hala balegokio, eranskin horren arabera dagokion ziurtapena.

Legedi horrek dena delako zerbitzu hori eskaintzeko baimen bereziren bat izatea edo antolakunde jakin bateko kide izatea eskatzen badie enpresei, enpresak baldintza hori betetzen duela egiaztatu beharko du.

Baimen edo kideetasun hori eskatzen ez bada, erantzukizunpeko deklarazio bat aurkeztu beharko du, eta hor jasoaraziko da inguruabar hori.
 - 1.1.4.- 13.2.8 klausularen inguruan, karatularen 29.1 puntuan sailkapena eskatzen denean, enpresa horiek, sailkatuta ez badaude, karatularen 29.1 puntu horretan eskatzen diren kaudimen-eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, eta, enpresak Erkidegoko ziurtagiria edo antzeko dokumenturen bat aurkeztu ezean eta eskakizuna aurreko 1.1.1 puntuan aipatzen den presuntzioaren bidez egiaztatu ezean, enpresak puntu horretan ezarritako bitartekoen bidez egiaztatuko du eskakizun horiek betetzen dituela.
 - 1.2.- Horrez gain, honako hau aurkeztu beharko da:
 - 1.2.1.- Kontratua Espainian gauzatu behar bada, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla jakinarazteko adierazpena, eta lizitatzailerari legokiokkeen atzerriko jurisdikzio foroari uko egiten diotela adieraztekoa, hala balegokio.
- 2.- Atzerriko enpresak, Europar Batasuneko kide ez diren estatuetakoak (*SPKLren 44.1 artikulua eta APKLEOaren 10. artikulua*).

- 2.1.- Enpresa horiek, bakarrik aurkeztu edo enpresen aldi baterako elkartean aurkeztu, administrazio-klausula zehatzen agiri honetako 13. klausulan aipatutako agiriak sartu behar dituzte «Gaitasuna eta kaudimena» izeneko A gutunazalean, honako berezitasun/zehaztasun hauekin:
- 2.1.1.- Administrazio-klausula zehatzen agiriko 13.2.2 eta 13.2.4 klausulen inguruan, nortasunari buruzko identifikazio-agiria aurkeztu beharko dute, bai eta, norberaren izenean jarduten ez badu edo pertsona juridiko bat izanez gero, ordezkaritza-ahalordea, gaztelaniara edo euskarara itzulia ere.
- 2.1.2.- Jarduteko gaitasunaren inguruan (agiriaren 13.2.3 eta 13.2.6 klausula), enpresak egoitza duen lekuan Espainiak duen Misio Diplomatiko iraunkorrek edo Kontsuletzeko Bulegoak emandako txosten baten bidez egiaztatuko dute honakoa, enpresak ere egiaztatu ondoren: erregistratuta dagoela tokiko lanbide- edo merkataritza-erregistroan edo antzekoren batean, edo, halakorik ezean, kontratuaren xedearen eremuko jardueretan aritu ohi direla egoitza duen leku horretan.
- 2.2.- Horrezaz gain, honako hau aurkeztu behar dute:
- 2.2.1.- Kasuan kasuko Espainiako Diplomaziako Misio Iraunkorrek emandako elkarrekikotasun-txostena, eta hor egiaztatu beharko da enpresaren jatorrizko estatuak aukera ematen diela enpresa espainiarrei hango Administrazioarekin eta SPKLren 3. artikuluan aipatutakoen pareko sektore publikoko ente, organismo edo entitateekin egiten diren kontratazioetan parte hartzeko, funtsari dagokionez modu berean. Erregulazio harmonizatuaren peko kontratuetan, Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Hitzarmena sinatu duten estatuetakoen enpresek ez dute elkarrekikotasunari buruzko txostenik aurkeztu behar, baldin eta akordio horren sinatzaile dela egiaztatzen bada, enpresak egoitza duen lekuan Espainiak duen Diplomaziako Misio Iraunkorrek edo Kontsuletzeko Bulegoak emandako txosten baten bidez.
- 2.2.2.- Kontratua Espainian gauzatu behar bada, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla jakinarazteko adierazpena, eta lizitatzailerari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foroari uko egiten diotela adieraztekoa, hala balegokio.

BEHIN BEHINEKO EDO BEHIN BETIKO ESLEIPENDUN GERTATZEN DENEAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

Atzerriko enpresa bat kontratuaren behin behineko edo behin betiko esleipendun gertatzen bada, hurrenez hurren, 25. eta 28. klausuletan adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu, honako berezitasun hauekin:

Espainian egoitza fiskalik ez duten atzerriko enpresek, betiere, egoitza duten herrialdeko agintaritza eskudunak emandako ziurtapena aurkeztu beharko dute, zerga-betebeharrak betetzean egunean daudela eta herrialde horretan eskatzen diren gizarte-betebeharrak betetzean egunean daudela egiaztatzen duen ziurtapena, hain zuzen ere. Egiaztatzen azken hamabi hilabetei buruzkoa izan beharko da, eta gaztelaniara edo euskarara itzulita aurkeztuko da.

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIAREN III. ERANSKINA

LIZITAZIO, KONTRATAZIO ETA JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOA ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK

- 1.- Kontratazio-prozeduraren izapideak (agiriak bidali, kontratua sinatu...) telematikoki egiteko baldintzak.
 - 1.1.- Enpresa interesdunak bete beharreko baldintzak:
 - 1.1.1.- Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean alta emanda egon behar du, eta indarrean dagoen ziurtagiria izan behar du.
 - 1.1.2.- Alta eman behar du «Lizitazio elektronikoa-Lizitazio elektronikoa erabiltzeko ahalordea duten pertsonen zerrendan». Horretarako, «Aplikazioa kontsultatzeko ahalordea eta baimena duten pertsonen zerrenda» izeneko inprimakia bete behar du.
 - 1.1.3.- Eskaintzaren diru-zenbatekoaren arabera, lizitatzen duen pertsonak eskaintza modu elektronikoan sinatzeko adina ahalmen izan behar du.
 - 1.1.4.- Lizitatuzaileak Izenpek emandako ziurtagiri elektronikoa eduki behar du. Hauetakoren bat, hain zuzen: herritarraren ziurtagiria edo erakundearen ziurtagiria.
 - 1.2.- Enpresak erabiliko duen ekipamendu informatikoaren eta dokumentu-formatuaren baldintzak:
 - 1.2.1.- Windows edo Windows-NT sistema eragilea eta Internet Explorer nabigatzailea dauzkan ordenagailua edukitzea.
 - 1.2.2.- Izenpe SAren sinadura ezagutzeko softwarea —IZoft— ordenagailuan instalatuta izatea (Sinadura ezagutzeko konfiguratuta izan behar den Izenpe SAren software hori —IZoft— Izenpek ziurtagiria lortzerakoan ematen duen CDan bertan dago, eta automatikoki kargatuko da CDan jasota dagoen softwarea instalatzerakoan).
 - 1.2.3.- Izenperen erroko ziurtagiria ordenagailuan kargatuta izatea.
 - 1.2.4.- Izenperen txartel-irakurgailua ordenagailuari konektatuta izatea.
 - 1.2.5.- Izenperen sinadura-proba eginda izatea.
 - 1.2.6.- Internet nabigatzailean konfiantzazko bi gune alta emanda egotea: «euskadi.net» eta «ej-gv.net».
 - 1.2.7.- Internet Explorer nabigatzailean pop-up-ak gaitzea.
 - 1.2.8.- «Real Player» bistaratze-programa edukitzea, plikak zabaltzeko ekitaldia ikusi ahal izateko.
 - 1.2.9.- Honako luzapen hauekin gordetako dokumentu informatikoak bakarrik irakurri eta izapidetuko direla bermatzen da: .doc, .xls, .ppt, .pdf, .rtf., .sxw, .abw, .jpg, .bmp, .tiff, .zip, eta .7z. Birus-arriskua ahalik eta txikiena izan dadin, bidali beharreko dokumentuetan .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatuak erabiltzea gomendatzen da.
- 2.- Kontratazio-elektronikoko sisteman nola sartu:

Sistema erabiltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren atari erkidean sartu behar da, edo, bestela, atari horretan jasotako eduki espezifikotan sartu zuzenean, www.contratacion.info edo www.euskadi.net/contratacion helbidearen bidez.
- 3.- Kontratazio elektronikoko sistemaren ezaugarriak:
 - 3.1.- Eusko Jaurlaritzak erabiltzen duen aplikazio informatikoak J2EE teknologia eta 3 geruzako arkitektura teknikoa ditu oinarri, eta SSL protokoloa duen web zerbitzari segurua, BEA weblogic 8.1 aplikazio-zerbitzaria eta Oracle 8i datu-base zerbitzaria ditu. Hori guztia, Unix Sun Solaris 2.8 (1. bertsioa) sistema eragilearen mende dago, eta sistema hori, halaber, LDAP protokoloan eta Izenpe SAren gako publikodun azpiegiturak –PKI– erabiltzen duen X509V3 ziurtagiri digitala (64. oinarria) duen sinadura elektronikoa aitortuan dago oinarrituta.
 - 3.2.- Eskaintzen bortxaezintasuna ziurtatzeko, sinatutako applet bat deskargatu eta exekututzen da, DLL.dll isilpeko liburutegian oinarritutakoa. Applet horrek eskaintzak zatikatu, zifratu eta bidali egiten ditu, bai eta ondorenean deszifratu eta berrosatu ere.
- 4.- Kontratazio elektronikoko sistema erabiltzearen abantailak:
 - 4.1.- Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak 2004ko abuztuaren 16an emandako Aginduan jasotako izapideetan bide telematikoa erabilita, bermatuta geratzen da identifikazioa, organo eskudunak eskumena gauzatuko duela, eta emandako dokumentuen egiazkotasuna, osotasuna eta kontserbazioa. Izapidetze telematikoa sinadura elektronikoa aitortua erabiltzen da.
 - 4.2.- Izapidetze telematikoa aukera ematen du egindako izapideen kontsulta telematikoa egiteko.

4.3.- Lizitazio elektronikoko sistemak bermatzen du lizitatzen duenak igorritako eskaintzak edukia ez ikusteko moduan bidali eta erregistratzen direla; legez horretarako baimena dutenek ikus dezakete bakarrik, legez ezarritako unean.

Hori lortzeko, erabilitako sistema informatikoak bermatzen du eskaintzak zifratuta eta zatituta igorriko zaizkiola espedienteak izapidetu behar dituen unitateari. Kontratazio-mahaia osatzen duten kideen gako publikoen bidez zifratzen dira eskaintzak.

Gako horiek dena delako espedienteen bakarrik daude eskuragarri, dagokion aplikazioaren bitartez. Gainera, eskaintzak berrosatzeko eta deszifratzeko, ezinbestekoa da kontratazio-mahaiko kideetatik legeak ezartzen duen nahitaezko quorumak parte hartzea eskaintzak irekitzeko ekitaldian, nork sinadura elektronikoko aitortuaren bere egiaztagiriarekin.

5.- Gorabeherak sistemaren erabileran:

5.1.- Baldin eta dokumentuak, idatziak edo jakinarazpenak formatu elektronikoa, informatikoa edo telematikoa sinatuta jasotzen badira, eta, aldi berean, paperean ere bai, bertsio elektronikoa, informatikoa edo telematikoa bakarrik hartuko da kontuan.

5.2.- Honako luzapen hauekin gordetako dokumentu informatikoak bakarrik irakurri eta izapidetuko direla bermatzen da: .doc, .xls, .ppt, .pdf, .rtf, .sxw, .abw, .jpg, .bmp, .tiff, .zip, eta .7z.

5.3.- Birusek sistemaren eraginkortasunean eduki dezaketen eragina ahalik eta txikiena izan dadin, dokumentuak .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatuan bidaltzea gomendatzen da.

5.4.- Eskaintzak birusik gabe igorriko dira, irakurtzeko zailtasunik edo ezinik egon ez dadin, eta lizitatzen duenaren ardura izango da eskaintzek inongo birusik ez izatea.

5.5.- Nolanahi ere, eskaintzak birusa edukitzeak ez du, besterik gabe, eskaintza baztertzea ekarriko, betiere, eskaintzaren edukia ikusteko modua badago.

5.6.- Lizitazio batean telematikoki parte har daitekeela iragarrita ere, kontratazio-mahaia, eta, horrelakorik egon ezean, kontratazio-organoak, aldi batez ondoriorik gabe utz dezake eskaintza telematikoa aurkezteko aukera, arazo teknikoak direla-eta lizitazioa modu horretan egin ezin bada.

5.7.- Kasu horretan, teknikoki posible den heinean, egoera horren berri emango da espresuki, lizitazio elektronikoko web orrian mezua jarrita.

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOA

Jakinarazpen elektronikoko sisteman alta emateko, honako bide hauek erabil daitezke:

1.- «Lizitazio elektronikoa» aplikazio informatikoa; aplikazio hori web orri honetan dago: www.contratacion.info edo www.euskadi.net/contratacion.

2.- Kontratisten Erregistro Ofizialean «Lizitazio elektronikoa-Komunikazio eta jakinarazpen elektronikoa jasotzeko baimena duten pertsonen zerrenda» inprimakia aurkeztea. Inprimakia honela lor daiteke:

a) Eusko Jaurlaritzaren e-Kontratazio Sistemako informazioak atzitzeko interneteko helbideetatik jaitsi daiteke; hauek dira helbideak: www.contratacion.info edo www.euskadi.net/contratacion.

b) Kontratisten Erregistro Ofizialeko mahaian eska daiteke.

Jakinarazpen elektronikoa erabiltzeko, beharrezkoa da, aldeztu aurretik, jakinarazpenetarako bide hori lehenesten dela berriaz adieraztea edo lehenesteko adostasuna ematea, eta, horretarako, helbide elektronikoa bat identifikatu edo onartu behar da.

Jakinarazpen elektronikoa egin dela edo ukatu egin dela ulertuko da, interesdunak onarpena edo uko elektronikoki sinatzen duen unean; horrez gain, jakinarazpena ukatu egin dela ulertuko da helbide elektronikoa jakinarazpena jaso dela egiaztatzen eta egutegiko hamar egunetan jakinarazpena zabaltzen ez bada, non eta Administrazioak hala erabakita edo hartzailearen eskariz frogatzen ez bada jakinarazpena zabaltzea ezinezkoa dela, arrazoi tekniko edo materialak tarteko. Ondorio horietarako, datu-basean jasota geratuko da zein egun eta ordutan jarri den jakinarazpena interesdunaren eskura bere helbide elektronikoa, bai eta, hala badagokio, interesdunak edukia zein egun eta ordutan ikusi duen ere.

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIAREN IV. ERANSKINA¹
Kontratuari ezartzekoa al da? (bai/ez):

MULTZOEI BURUZKO ZEHAZTAPENAK
(zenbakia, azalpena eta aurrekontua gehienez)

MULTZOA				AURREKONTUA, GEHIENEZ	
Zk.	Izena	Azpimultzoa edo produktua		Azpimultzoa edo produktua	Multzoa
		Zk.	Izena		

**Zehaztapen teknikoak baldintza teknikoen agirian zehaztu dira.*

¹ Beharrezkoa bada, kontratazio-organoak eranskin honen edukia egokitu dezake, kontratu bakoitzaren berezitasunen arabera.

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIAREN V. ERANSKINA²

(kasu honetan bakarrik aurkeztu behar da: baldin eta karatularen 25.2 puntuak adierazten badu prozedura murriztu bat eta prozedura negoziatu publikitadedun bat dela)

Enpresa interesdunak eskabide bat eskatu behar du prozedura honetan? (bai/ez):

PARTE HARTZEKO ESKAERA

Izen-abizenak:jauna/andrea.
Helbidea: herria, kalea.
NAN-zenbakia: Noren izenean jardungo duen:
(nork bere izenean edo ordezkatzan duen pertsona, erakunde edo enpresaren izenean). Jakinarazpenetarako helbidea: herria,kalea, PK.
Tel.: IFK:

ONDOKOA ADIERAZTEN DUT:

- 1.1.- Izan dut xede duen kontratua esleitzeko prozeduraren berri.
- 1.2.- Halaber, ezagutzen ditut baldintza teknikoaren agiria, administrazio-klausula zehatzen agiria eta kontratu hau zuzenduko duten gainerako agiriak, eta oso-osorik eta salbuespenik gabe berariaz neure egin eta ontzat hartzen ditut.
- 1.3.- Ordezkatzen dudana enpresak irekitzeko, ezartzeko eta funtzionatzen hasteko indarrean dagoen araudiak esijitzen dituen betekizun eta obligazio guztiak betetzen ditu.
- 1.4.- Hemen aipagai dugun kontratua dela-eta, honako hau eskatzen du: lizitazioan onartua izatea eta eskaintza aurkezteko gonbidatua izatea.

.....(e)n,(e)koren(e)an

Sinadura
NAN

² Beharrezkoa bada, kontratazio-organoak eranskin honen edukia egokitu dezake, kontratu bakoitzaren berezitasunen arabera.

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIAREN VI. ERANSKINA³
(Eskaintza ekonomikoa nahitaz aurkeztu behar da prozedura guztietan)

ESKAINZA EKONOMIKOA
Eredu honek ba al du addenda-rik (bai/ez)?

Izen-abizenak:jauna/andrea.
Helbidea: herria, kalea.
NAN-zenbakia: Noren izenean jardungo duen:
(nork bere izenean edo ordezkatzeko duen pertsona, erakunde edo enpresaren izenean). Jakinarazpenetarako helbidea:
..... herria,kalea,..... PK.
Tel.: IFK:

ONDOKOA ADIERAZTEN DUT:

- I.- Izan dut xede duen kontratua esleitzeko prozeduraren berri.
- II.- Halaber, ezagutzen ditut proiektua, administrazio-klausula zehatzen agiria eta kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak, eta oso-osorik eta salbuespenik gabe berariaz neure egin eta ontzat hartzen ditut.
- III.- Ordezkatzeko dudako enpresak betetzen dituen indarrean dagoen araudiak enpresa ireki, instalatu eta jardunean aritzeko ezartzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak, eta, eskaintza prestatzeko orduan, kontuan izan dituen enplegua babesteari, lan-baldintzei eta lan-arriskuak prebenitzeari eta ingurumena babesteari buruz indarrean dauden xedapenak ezarritako betebeharrak.
- IV.-Eskaintza honen prestazioari dagokionez:
- a) Oinarritzeko soluzioaren/ zenbakiko aldaeraren arabera gauzatzea proposatzen dut (*zehaztu dagokion zenbakia*), euroko prezioan (letraz idatzi), BEZa sartu gabe. Zenbateko horri (*) euro BEZ dagokio (*letraz idatzi*), eta, horrenbestez, zenbatekoa, guztira, BEZa barne, euro izango da (*letraz idatzi*). Zenbateko horretan sartuta daude aplikatzekoak diren zerga, tasa eta kanon guztiak, bai eta prestazioa emateak edo administrazio-klausula zehatzen agiri honetan jasotako obligazioak betetzeak esleipendunari eragingo dion beste edozein gastu ere.
- b) Eta ondoren zehaztutako epean edo epeetan egingo dut (*epea eskaintzak baloratzeko irizpide baldin bada soilik*):

.....(e)n,(e)koren(e)an

Sinadura
NAN

(*) Salbuespen subjektiboa bada, hala adierazi behar da, eta egiaztatutako erantsi.

³ Beharrezkoa bada, kontratazio-organoak eranskin honen edukia egokitu dezake, kontratu bakoitzaren berezitasunen arabera.

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIAREN VII. ERANSKINA
(Eredu hau nahitaez aurkeztu behar da prozedura guztietan)

BALIABIDEAK JARTZEKO ETA KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEKO KONPROMISOA

Enpresak honako konpromisoa hartzen du: bere ekoizpen-egitura kontratatutako jarduera garatzeko erabiliko du, eta, horrez gain:

Gaitasun teknikoaren egiaztapena osatzeko, enpresak, kontratua gauzatzeko baliabide material eta pertsonalei dagokienez, konpromisoa hartu beharko du jarraian adierazitako baliabideak jartzeko (*baliabide horiek, kasu batzuetan, kontratazio-organoak ezartzen ditu, baliabide pertsonal edo materialen ezaugarriei edo prestakuntzari gutxieneko batzuk jarri behar zaizkiola iritzita*):

I.- Baliabide materialak:

II. Giza baliabideak:

BALIABIDEAK JARTZEKO ETA KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEKO KONPROMISOA

Izen-abizenak:.....jauna/andrea.
Helbidea: herria, kalea.
NAN-zenbakia: Noren izenean jardungo duen:
(nork bere izenean edo ordezkatzan duen pertsona, erakunde edo enpresaren izenean). Jakinarazpenetarako helbidea: herria,kalea,..... PK.
Tel.: IFK: ,

ONDOKOA ADIERAZTEN DUT:

Konpromisoa hartzen dutzenbakiko espedienteari dagokion kontratua gauzatzeari buruz, Karatulan eta klausula-agirian kontratua gauzatzeko ezarritako baldintza bereziak betetzeko, eta ondorengo hauek kontratua gauzatzeko honako hauek jartzeko: a) ekoizpen-egitura, b) klausula-agirian kontratua gauzatzeko baldintza berezi moduan ezarritako baliabideak, c) «*Gaitasuna eta kaudimena*» izeneko *A gutun-azalean egiaztatutako baliabideak*, bai eta, ezarrita baldin badaude, Eranskin honetan adierazitako baliabide pertsonal eta material zehatzak ere.

Eta hala ager dadin, adierazpen hau sinatzen dut, (e)n(e)koren(e)an.

Sinadura
NAN

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIAREN VIII. ERANSKINA
(Eredu honen 1. ataletik 4.era bitartekoak nahitaez aurkeztu behar dira)

GAITASUNARI BURUZKO ERATZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Izen-abizenak:.....jauna/andrea.
Helbidea: herria, kalea.
NAN-zenbakia: Noren izenean jardungo duen:
(nork bere izenean edo ordezkatzan duen pertsona, erakunde edo enpresaren izenean). Jakinarazpenetarako helbidea:
..... herria,kalea,..... PK.
Tel.: IFK:

(*)..... espedienteari dagokionez

ONDOKOA ADIERAZTEN DUT:

- 1.- Kontratu hau dela-eta, jarduteko gaitasun osoa dut eta jarduera betetzeko behar diren baimen guztiak ditut.
- 2.- Ez ni neu, ez ordezkatzan dudana erakunde edo enpresa, ezta haren administratzaile edo legezko ordezkari bat ere, ez gaude Herri Administrazioekin kontratuak egiteko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (30/2007 Legea, urriaren 30ekoa) 49. artikuluan adierazitako ezein debekutan sartuta.
- 3.- Halaber, adierazten dut enpresak egunean dituela indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, eta konpromisoa hartzen dut, behin-behineko esleipendun suertatuz gero, betebeharrak hori administrazio-klausula zehatzen agiriko 25. klausulan adierazi bezala egiaztatuz, esleipena administrazio honen kontratatzaile profileen argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktatzen hasita 15 eguneko epean, gehienez ere (Karatulako 25.1 puntuak adierazten badu tramitazioa presazkoa dela, epe hori hamar egun baliodunekoa izango da).
- 4.- Ez naiz izan esleipendun eta ez dut parte hartu zehaztasun teknikoak edo kontratua prestatzeko agiriak egiten, ez nire aldetik, ez enpresaburuen aldi baterako elkarrearen bidez.
- 5.- Saikapen-ziurtagirian jasotako datuak ez dira aldatu.
- 6.- Hurrengo atal hauetan, BAI/EZ adierazi behar duzu, kasu bakoitzean dagokiona.
 - 6.1.- Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofiziala
 - a) Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean erregistratuta dago enpresa, eta:
 - Dagokion ziurtagiria erantsi dut (bai/ez, adierazi dagokiona)**:
 - Ziurtagiria administrazioak bere kabuz eransteko baimena ematen dut –Karatulako 29.5 c) puntuak horretarako aukera emanez gero bakarrik- (bai/ez):
 - b) Halaber, adierazten dut ziurtagiria emateko oinarri izan ziren baldintzek indarrean jarraitzen dutela (bai/ez, adierazi dagokiona):
 - 6.2.- Enpresa-taldea (Merkataritzako Kodearen 42.1 artikulua)
Enpresa-talde bateko kide da enpresa (bai/ez):
Hala bada, adierazi jarraian edo agiri honi gehitutako eranskinean zer dela-eta lotu zaion taldeari, talde berekoak diren enpresek zer-nolako erlazioa duten eta enpresa horietatik zeinek duten lizitzatzeko interesa.
 - 6.3.- Behin-behineko esleipendun izanez gero eta aukera hori karatulako 37.2 puntuan aurreikusita egonez gero, baimena ematen dut Administrazioak bere kabuz sar ditzan espedienteen ziurtagiri telematikoak edo datuen transmisio telematikoak, karatularen 37.2 puntuak bitarteko horien bitartez egiaztapenak egiteko ematen duen aukera baliatze aldera (bai/ez):

Eta hala ager dadin, adierazpen hau sinatzen dut,(e)n(e)koren(e)an.

Sinadura
NAN

(*) Adierazi administrazio-klausula zehatzen agiraren karatulan agertzen den espediente-zenbakia.

(**) Administrazio-klausula zehatzen agiriko 13.1.2 klausulan jasotako ondorioak izan ditzan, ziurtagiria aurkeztu behar du, administrazioak ziurtagiria bere kabuz eransteko baimena duenean edo kontratazio elektronikoko sistema erabiltzen denean izan ezik.

*ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIAREN IX. ERANSKINA
(aurkeztea aukerakoa, eskaintzaren balorazio-irizpideen artean hobekuntzak jasota badaude)*

BESTELAKO HOBKUNTZEN PROPOSAMENA, ESKAINITAKO PREZIOA IGO GABE: KONTRATUAN EZARRITAKO BETEBEHARREZ BESTEKO PRESTAZIO GEHIGARRIAK DIRA, ESKAINTZEN GAINERAKO BALORAZIO-IRIZPIDEETAN SARTZEN EZ DIRENAK

Izen-abizenak:jauna/andrea.
 Helbidea: herria, kalea.
 NAN-zenbakia: Noren izenean jardungo duen:
 (nork bere izenean edo ordezkatzan duen pertsona, erakunde edo enpresaren izenean). Jakinarazpenetarako helbidea:
 herria,kalea, PK.
 Tel.: IFK:

Administrazio-klausula zehatzen agirian 16.1 klausulan ezarritakoaren arabera, oinarritzko eskaintza/... zenbakiko aldaeran (adierazi dagokiona) bestelako hobekuntza hauek egiteko proposatzen du, eskaintako prezioa gehitu gabe; hobekuntza horiek kontratuan ezarritako betebeharrez beste prestazio gehigarriak dira, eta ez dira sartzen gainerako balorazio-irizpideetan.

Hobekuntza bakoitza banaka hartu beharrekoa da; beraz, kontratazio-organoak erabaki dezake hobekuntza hauetako bat edo batzuk sartzea kontratuan, ala bat ere ez sartzea.

	HOBKUNTZA zk.: ...
Hobekuntzaren azalpena:	

	HOBKUNTZA zk.: ...
Hobekuntzaren azalpena:	

	HOBKUNTZA zk.: ...
Hobekuntzaren azalpena:	

.....(e)n(e)koren(e)an

Sinadura
NAN

*Eskaintza baloratzeko gehienez aurkez daitezkeen hobekuntzen kopurua eta hobekuntza horien ezaugarriak Karatularen 31.3 puntuan daude jasota. Hiru hobekuntza baino gehiago aurkeztuz gero, enpresak dagozkion eremuak erants ditzake.

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIAREN X. ERANSKINA
(aurkeztea aukerakoa)

ESTATUAREKIKO ETA EUSKADIKO FORU-ALDUNDIEKIKO ZERGA-BETEBEHARREI BURUZKO
INFORMAZIOA EMATEKO BAIMENA (*).

Izen-abizenak:.....jauna/andrea.
Helbidea: herria, kalea.
NAN-zenbakia: Noren izenean jardungo duen:
(nork bere izenean edo ordezkatzan duen pertsona, erakunde edo enpresaren izenean). Jakinarazpenetarako helbidea:
..... herria,kalea,..... PK.
Tel.: IFK:

(**). espedienteari dagokionez

Baimena ematen diot Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioari bide informatiko edo telematikoen bidez informazioa eska dezan zerga-betebeharrak egunean ditugun edo ez jakitearren, goian aipatutako espedientearen kontratazio-prozeduraren ondorioetarako; hori guztia, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta bestelako Zerga Arauei buruzko abenduaren 9ko 40/1998 Legearen laugarren xedapen gehigarriak eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenek ezarritakoarekin bat etorritik.

Eta hala ager dadin, agiri hau sinatzen dut,(e)n(e)koren(e)an

Sinadura
NAN

(*). *Baimen honek, besterik gabe, ez du kentzen betebeharrak horiek bete izana egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharra. Agiriak aurkeztu beharrik ez izateko, beharrezkoa da, baimena aurkezteaz gain, administrazio-klausula zehatzen agiriaren karatulan aukera ematea administrazioak dagokion ziurtagiria bere kabuz aurkez dezan.*

(*). *Adierazi administrazio-klausula zehatzen agiriaren karatulan agertzen den espediente-zenbakia.*

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIAREN XI. ERANSKINA
(aurkeztea aukerakoa)

ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOAK ISILPEKO IZENDATZEKO EREDUA

Izen-abizenak:.....jauna/andrea.
Helbidea: herria, kalea.
NAN-zenbakia: Noren izenean jardungo duen:
(nork bere izenean edo ordezkatzan duen pertsona, erakunde edo enpresaren izenean). Jakinarazpenetarako helbidea:
..... herria,kalea,..... PK.
Tel.: IFK:

ONDOKOA ADIERAZTEN DUT:

..... (*) kontratazio-zenbakiko espedientearen gutun-azalean (*adierazi zein gutun-azal den*) sartutako agiriei dagokienez, sekretu tekniko edo komertzialei lotuta daudenez, isilpekotzat jotzen dira eskaintzaren informazio eta alderdi hauek:

Isilpeko dira, honako arrazoi hauengatik:

.....(e)n(e)koren(e)an

Sinadura
NAN

(*) *Adierazi administrazio-klausula zehatzen agiriaren karatulan agertzen den espediente-zenbakia.*